



BANBUPEAN

Mundu sherpa bat

Galder Unzalu Etxabe

Javier Idirin Hurtado



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GALDER UNZALU ETXABE
JAVIER IDIRIN HURTADO

banbupean

Ipuinak Galderrek idatzi ditu; ilustrazioak Javierrenak dira.

AURKIBIDEA

HITZAURREA

SHAMPALMUREN GOIZALDEAK

METAK

TSERING LAINO ARTEAN

ARROILARI BEGIRA

LAMU, ZERRIZAKUR ETA OTSOZERRI

PATHIREN BELARRIKO MINA

JAUZIA

LAKSUMEN IRRIBARREAREN ATSEDENA

HITZAURREA

Trekking bideetatik aldenduta Sukhetar sherpa herrixka Nepal ekialdean, Katchenjunga eta Makaluren mendilerroen artean, dago kokatua. 2.000 metro luzeko mendi magal luzeetan eskegia, sagar bat adarretik nola. Bertan bi aldiz egindako egonaldietan, egilea fokoetatik urrun dagoen mundu batera hurbildu da hiru urteko tartean, eta esperientzia horren emaitza dira 8 ipuinok. Entzuetatik eta bizitzetik, sartzetik eta egotetik sortutako ipuinak dira, sentsazioak eta istorio biziak hurbiltzeko gogoz munduratuak. Zuriak "bestearen" baitara egindako saiakera, Sherpen artera jauzi egiteko letra bidezko gonbitea, haien ahots mediatikoki desagertuak gorpuzteko desioa, aurriritziak gainditzearen gaineko gogoeta. Mundu miragarri eta zigortu batera betaurrekoak kenduta eta biluzik murgiltzeko eskaintza.

Sherpa Herria, XV. Mendean Tibetetik Himalaiaren hegoalderantz egin zuen tibetar jatorriko herria, goi-mendizaletasunaren ikur, tresna eta langile, burruna mediatikoak aldi berean heroifikatu eta ukatu duen herria. 300.000 bat mila hiztun Nepalgo mendialdeko eta batzutan kontaktu zuzenik ez duten hainbat eskualdetan zabalduak. Himalaiaren kirol-konkistak betirako aldatu duen herria. Migrazioak gogor kolpatua, estatalizazioak eta mundu garaikideak arriskuan jarria, aldi berean migrazioan eta globalizazioan bizitza pertsonal eta kolektiboari eusteko baliabideak bilatzen dituen herria. Galtzen ari den mundu ikuskera propio baten jabe izaki, XXI. mendean eusteko inoiz baino gazteria globalagoa duen herria. Herri azpiratu guztien galderei erantzun behar dion herria.

SHAMPALMUREN GOIZALDEAK

Goizeko hirurak ziren. Uzta garaiko egun haietan ohikoa zenez, ohatzetik etxeko atarira jaitsi eta arroza xehatzeari ekin zion. Lan gogorra zen, mekanikoa, ordu luzez mugimendu berbera eskatzen zuena, makila-xehatzailea haizatuz egurrezko eltzean sartu-irtenak egitean zetzana, arroz aleak irina bihurtzeko ahalegin handia eskatzen zuena. Izerditan blai bukatzen zuen Shampalmuk sasoi hartako goizalde bakoitzean, klaseko atsedendietan euren betiko jolasean aritu ohi zirenean baino dezente bustiago.

Jolasa eta laneko izerdiak ezin alderatu ordea. Are gutxiago uda sasoiaren egokitu ohi zitzaion goizaldeko lan hartako izerdi iluna, eguzkiak urrunean ageri zen Katchenjungaren ertzen atzetik, izpi lotsatiz, harana arrosatzeko oraindik ere bi ordu luze behar zituela, ilun beltza. Ahizpa nagusia izaki, bera zen etxeko lan gogorrenen zama zeramana, bigarren ahizpa Mi hurrena. Hurrenkera berebizikoa, harexek adierazten baizuen nork zer egin behar zuen egunean zehar herriko al baitariaren sendi ia aberats hartan. Goizeko hiruretako txikitze lanak: Shampalmuk. Goizeko seieta sukaldari lanak: Mik. Goizeko zazpietako jasotze lanak: Shampalmuk. Arratsaldeko bostetako afari prestatze lanak: Mik. Afariko zerbitzari lanak: Shampalmuk. Egunero-egunero.

Gazteena zuten Tsiring mutil-koxkorak ordea argi zuen zein zen bere tokia ilaran: patxadaz begiratzea. Eta arrazoa ez zen gaztetasuna, are nabarmenki etxeko jaun ttipia izatea. Etorkizuneko oinordekoa. Aita herriko alkate eta al baitariaren, herrixkan zegoen Nepaleko estatuko soldatapeko bakarra bera, begikoa eta babestua. Leku lasaia beti Tsiringek, goizaldeko xehatze, goizeko sukaldatze, eta egun osoko garbitze lanetatik at. Etxeko emakumeen lanetatik at, salbuespen bakarrarekin: etxeko ganbaran pilatutako milaka artaburuen bizar garbiketan denak bat. Herrikide zein senitartekoak ere zuritze lanetara gonbidatuak ziren etxea zapaldu bezain agudo, hori baizen hizketa-gunea arto-bizar lanak bukatu bitarteko garaian. Sherpa hizkuntzan gotortutako mintzatokia, ganbarako errege zen irriaren baimenarekin, goizeko bostetatik aurrera nepaleraz etengabe bustitzen zuen-eta teilatupeko soto hura.

Uzta garaian ganbara artaburuz bete orduko artabizarrak lehortu baino lehen egin beharreko jarduna zen eta zenbat eta esku gehiago, hobe, etxean aterpeturik zeukaten bisitari zuriarenak

barne. Honek artaburu bat garbitu bitartean, sherpa familia hartako bakoitzak bost garbituak zituen. Abiada alde nabarmenak, zuriak gelakideen begiradetan sumatzen zituen hainbat zirikatze eta solas-molas sortzen zituena.

Ama. Berezia ama. Jantzi dotorez atondutako emakume lirain eta tentea. Berea zen etxeko martxa senarra bailarako bufaloak zikiratzera, gaixotutako ardiak sendatzera, aldatsetan gora eta behera kilometroak egitera zein etxeko gazteria eskoletara (Tsiring herriko lehen hezkuntza eskolara, Shampalmu eta Mi bailarako bigarren hezkuntzako zentrorra) abiatu orduko.

Herriko auzokide txiroagoek, esaterako bere inguruko etxalde guztietako emakumeek, lanerako inoiz jantziko ez lituzketen sherpen soineko finekin ekiten zion egunari goizarekin batera, eta sukaldean, baratzean, animalien hertzeetan zein saltzaile lanetan berak hartzen zuen etxeko buruzagiaren tokia.

Saltzaile lanetan ere bai, izan ere, etxe hura zen herriko denda bakarra: tabakoa, garagardoa eta kotxetako bateria arrunt batean egindako telefono mugikorren kargatzeak ziren herriko dendaren harreman komertzial ohikoenak. Raksia ere saltzen zuten, esan nahi baita etxean egindako graduazio ezin altuagoko arto eta arroz-edari gogorra, edonoren eztarria sutan jartzeko modukoa zena. Beraz, martxa etxekoandarearena, presarik gabekoa zein tai gabekoa.

Hori bai, Mi eta Shampalmuk etxea zapaldu bezain laster, akabo bere martxa. Bi ahizpek erritmoa hartu eta ez zen gehiago ama ageri, afalorduan hiru harriko sutondoaren alboan lurrean, lastairan eseririk, inguruan bildutako sabel hitzun gosetutakoei (batzutan 5, gehienetan 7, hangoetan 10) eltzetik burruntzaliarekin arroza eta barazkiak banatzeko ez bazen.

Etxeko lema berriz ahizpen eskuetan. Ez ordea afalosteko hitz-aspertuan sukaldean zeuden hizlarien artean haien etorria gailentzen zelako, isilik ematen baizuten oheratu arteko tartea. Etxeko jaun eta famili buruaren etorriak ez zuen uzten hutsune gehiegirik beste inortxok ezer esan zezan sugarrek itzal bizidunez margotutako lokatzezko horma haiek hetsiriko gela ketuan. Lehengusu Antharkerekin zituen solasaldi luzeenak, bakarrizketatik gehiago zutenak beste edozerenak baino. Bisitaririk bazen, hark ere izan ohi zuen zer esana gaueko aferan, betiere albaitariaren interbentzio parlamentario luzearen ondoren. Inoiz, Antharkeren parean eseri

ohi zen bisitari zuriari zer edo zer galdetzen zion sasi-ingelese, eta behin lehengusuaren itzulpen ulergarriagotik galbahetuta, hark erdi-hitz erdi-imintziaz erantzun ohi zion etxeko jaunari, normalean Antharkek parte hartu behar zuelarik esan-nahi gurutzaketan arrakasta gutxieneko bat egon zedin.

Hauek ziren batere apaingarririk gabeko sukalde zutabedun epel hartan suaren bueltan ahotsa zuten aktoreak. Aktoresa bakarra ama, eta altxatu bai altxatzen zuela ahotsa sugarren pindarren gainetik, nagusiki janari banaketari zegokionean baina.

“Baten batek arroza gehiago nahi?”, “txili bero bat janaria pasatzeko?”, “ez duzu ezer jaten Antharke, haserre nago zurekin” eta horrelakoak ziren bere partehartzeak.

Gaueko afera ziren solasaldi luzeetan ez zen gehiago ageri. Han zetzan, txoko batean erdi-lo, ilunpearen babesean etxeko jaunaren begiak ez ziren beste guztietatik ihesi. Alabek euren aldetik, jardunean lema hartua izanagatik, oraindik ez zuten eltze-banaketa-kargua euren gain jaso. Nerabegarotik gaztetasunerako jauzian zeuden, eta hortaz, jarduna bai, hizketarik ez. Sukaldea euren erresuma, aldi berean areto zapaldu gabea. Hura afaltiarrez mukuru bete orduko, bazterrean geratzen ziren, alboko gelaxka batera zeraman atearen ia erlaitzpean, Antharke, azal zuriko gonbidatu zein bertaratuko zen beste edozein lehengusu edo solaskideren begiradatik babesean.

Hitzik ez. Ez bazen amari edo ahizpari txutxu-mutxuan belarrira ezingordekoren bat haizatzeko.

Haien inguruan egon ohi zen anai gazteena, seina, bazterrean jarrita. Honek ere ez zuen gehiegi hitz egiten, ez bazen pikotxetan zegoela besoa luzatu eta amari arroza mendixka bat edo eguneko barazkiaren koilarakada sakon bat galdegiteko. Koxkortutako mutikoa baino ez zen Tsiring, eta isiltasunaren legeak baino, adinak zeraman afari eta afalostean urtu arte zukutzen ziren gizon-kontuetan ez nahastera.

Mi eta Shampalmu, afalkideen azpilak hustu bezain laster, dena jaso eta desagertu egiten ziren. Gizonezkoentzat zen thumkba arroz-ardo beroa agertu orduko, Tsiring atzeko atetik auzoko lagunekin ilargi-azpiko gaiztakerietara abiatu, amak gizonen hitz-aspertuari bizkarra eman eta eurek biak alboko gelara etxeko lanak egitera sartzen ziren. Eta bestela, zuzenean ganbarara eguneko azken artabizarrak kentzera, eta handik zuzenean ohatzetara.

Lipar hau izaten zuten bi ahizpek euren artean, loguraren besarkada arerio bakar, kontu-kontari aritzeko abagunea.

Egun hartan Shampalmuk bisaia goibela zuen, eta Mik, nahiz eta egun osoan zehar igarri, gauera arte itxaron zuen nabaritu ziola iradokitzeke.

- “Zer Shampalmu, irakaslearen errietak hortxe dirau ala?” - ezaxola aurpegiaz.
- “Ez da ezer. Gaurkoan seko nekatuta nago. Eskolako aldatsean gora gentozela jada zuhaizpetara lotara sartzeko amorratzen nentorren” - gaiari heldu nahi izan gabe.
- “Tira ahizpatxo nagusi. Ondotxo ezagutzen zaitut ezohiko zerbait gogoan iltzaturik duzula ez igartzeko. Orain ez datoz klasekoak gurekin, ez gaude sukaldean, esaidazu zer den aurpegi-masailetan kolore ilun hori jarri dizuna” - Mik bazekien denbora gutxi zutela etxeakoak gela-komunera igo bitartean, denek batera lo egiten baizuten etxean aterpeturik zuten zuriak salbu. Zuzenean sakatzea erabaki zuen, alajaina.
- “Ahituta nauka gure bizimoduak Mi” - hotz Shampalmuk.
- “Berriz ere kontu honekin ahizpatxo?” - Mik ahotsa igotzeari ezin eutsiz.
- “Bai, berriz ere ahizpatxo. Konturatzen zara ez dugula ezta ordu-erdi ere libre egun osoan zehar? Konturatzen zara etxe honetan guk baino gutxiago ez duela ezta etxaurreko hesietako zerramak lo egiten? Ez duzu ikusi nahi institutua bukatu bezain laster, edo aita-amaren esanei uko egin edo inguruetako beste herrixkaren batetako famili oneko mozolo batekin ezkonduko gaituztela eta ezingo dugula mendietatik atera? Ez al duzu ikusten gure patua idatzita dagoela eta ez dugula hautsi edo irentsi besterik gure muturren aurrean? Zer egingo duzu unea heltzen denean, Kathmandura ihes egin eta betiko agur esan gure etxeari, lagunei, herrixkari edo hor aurreko maldako herri horretako etxerik onenean zure hurrengo 50 urteak igaroko dituzula onartu? Ez iezadazu esan, ahizpatxo, ez zaizkizula erraiak goragalea sortzeraino kiribiltzen gainera datorkiguna ikusten duzun bakoitzean” - jaurtiki zuen jaurtiki beharrekoa herrixka maite baina kartzela lez ere bizi zuen Shampalmuk.
- “Badakizu zuk bezalaxe, berdin-berdin, pentsatzen dudala Shampalmu. Orain, ordea, etorkizunean ito beharrean hobe dugu dagokiguna egin, eta gero gerokoak. Zoriak, Budak eta gure arbasoek guretzat idatzirik zer duten ez dakigu. Eta ezin dugu jakin. Hobe ez bagara estutzen” - ttattarra eta makal xamarra bezain hotza eta sorra zen Mi.

Lerdena, ama bezain ukitu aristokratikokoa eta ibilera dotorekoa zen Shampalmu ihardesten hasia zela, “Mi, zenbatetan hitz egin...”, aitzak eskapulario budista balitz lez estu-estu gorputzari itsatsirik etxean gora eta behera ibiltzen zuen irratia entzun zen oholezko mailadietan gora. Supituan, mututasunean sartu zen neskatoa. Intimitatea zer zen ezagutu gabeko munduan, soinurik leunenaren oihartzunak markatzen zuen solasaldi sakonenen bukaera.

- “Gabon Shampalmu eta Mi. Lotarako ordua heldu da. Zuen ama igo baino lehen hobe begiak ixten badituzue, badakizue nola jartzen den-eta lo egin beharrean zuek kalakan ikusita. Ez iezaiozue eman errietarako paradarik faborez, zalapartarik ez dugu behar. Are gutxiago beheko gelan zuri hori hemen dagoela. Hara, laztantxook, jarraituko duzue zuen kontutxoekin bihar eskolara bidean” - eta hori esanda, ganbara zabala argitzen zuen argi-pindar hitseko bonbilla bakarra amatatu eta irratia lagun, beti irratia lagun, bere ohatzean etzan zen etxeke jauna zen Tendi Vadour Sherpa.

Ez ziren hamar minutu ere pasa, eta han igo ziren teilatupeko gelara Tsiring hanka-puntetan lehenengo, ama Kali gero, irratia eta Tendi al baitariaren kontra purrustaka. Irratia berehala isildu egin zen. Bederatziak jada joak. Ilun zen. Kanpoan ia gaueroko tartekako zaparradak teila gabeko xafla metalikoan jotzen zueneko burrunbak lotarako giroa erraztu egiten zuen. Gauerokoa izanik, lasaigarri.

Teilatupeko ganbara, Sukhetar herriko etxe nagusiaren hiru solairuak, etxaurreko animaliak, auzuneko etxeak. Mendi magal osoa atsedenean. Bustita, blai, iluntasunari, lanbroari zein mendiko euri-jasa tropikalei amore emanaz. Denak etzanak, dena etzana. Asalduretatik at. Karkaba eta latsen ur kantariak gaueko musikari bakarrak. Ia 4.000 metrotatik 200 metrotara luzatutako malda luze eta sakona bera lautada bihurtzeko moduko patxadaz lo denak, sherpen mundu garaia ia ibai zabaletako arroz-urrael amaigabeen geldotasunean sartzeraino. Zaparraden esku ilunpeko ordu geldoen erritmoa.

Erauntsiak moteldu ahala, goiz-argia hurbilago. Laino hertsia astunak ireki eta hor azkorri arrosa, haranaren oholtzatik Katchenjungaren opari. Egunsenti koloretsua, fotogramaka ia igorria, ubel argian hasi eta laranja bukatua, ganduen etsai, artasoroetan iltzaturiko lanbroen edergarri.

Shampalmuk goizero-goizero gozaten zuen gozokia berau. Gozatu orduko, ordea, bazeramatzan bi ordu egurrezko ontzian enborraz jo eta su, galbahera bidean, arto eta arrozari ia txinpartak atera arte ehotze lanetan. Lotan ari zirenei ametsen urratsak markatzen. Himalaiapeko oihan itxietako biztanle ezkutuei batetik bestera barneratzeko bidaia abiada biziz egin behar zutela oroitaraziz, euriaren besarkada ihes-ezinaz gain, banbuzko etxoletan beti zutelako loak ezin harturik zegoen lagun bat aiduru. Birrintu eta birrintu, eman eta eman. Lan mekanikoa, musikaz betea, mugimendu erritmiko basatia, astuna eta bizia, zoroa eta galdua, luzea bezain latza. Zap-Zap-Zap. Gauero, ordu luzez. Oilarren polifoniak ortzia hautsi arte, perkusio zurtua, ariketa gautarra, elikaduraren mirabetza, alaba nagusi izatearen saria, gerri-sorbalda-besoan ballet derrigorrezkoa.

Inoiz kexua adierazia zuen Shampalmuk, ahots goran sukaldean, aurrez aurrekoan, amari, aitari, amonari, ahizpari.

Alferrik. Mugiezinak ziren famili arauak ez zeuden eztabaidatzeko. Alaba nagusia zen goiza arrosatu baino lehen birrinketa lanetara altxatzen zena, eta kito. Mik noiz edo noiz hartzen zion lekukoa gaueko lanetan, inoiz ahizpak eskatzen bazion, azterketaren bat bazeukan, bereziki nekatua bazegoen eta horrelakoetan.

Haatik, Shampalmuren ardura legez zehaztua zegoen etxeko antolaketan, inork ezin zuelarik hori aldatu etxe hartako banbuzko habeak zutik zirauten bitartean. Ezin ukitu.

Etxe hartan irratia sartu zenean, orduan bizirik zen Tendiren aitak, Dawa Namche Sherpa zaharrak, sherpen mundu jatorrizkoa hurbiletik ezagutu zuenak, bota zuen sententzia: "traste honekin gureak egin du. Bukatu dira ipuinak, sutondoko gaubelak, arto-bizar garbiketetako famili-kantu-kontuak. Infernuko zera horren zarata amorragarriak lehenengoz sartu ditu nepalerazko hitzak gure etxoletako banbu artera. Gureak egin du". Iltzaturik zuen albaiari aitaren esana. Irratia etxera bueltan Kathmandutik ekarri zuenean, piztu eta berehala aurpegiratu zion aitak euren munduaren akabera etxeko eskatzeraino ekarri izana. Ikasten zegoen hiriburuan, eta oparia zeraman etxera, inoiz ikusi gabeko gailu hark ahotsak nola haizatzen zituen ikus zezaten, musika berriekin goza zezaten. Aitak leporatu ziona ez zuen espero, eta orduko talka hark bere barnean zirauen. Eta haren jabe zenez, ez zuen tradizioari traizio gehiago egiteko batere asmorik.

Irratiak jada euren bizitzaren zati ziren, euren mendiko mundu sherparen parte. Zer esango luke aitona Dawak bera joan ondoko garaietan, osagile-azti hain ezagun eta boteretsu zen bere anaia Pembaren etxera bidean, banbu, hostozabal eta garo erraldoien oihanartetik, urrutian, etxalde baten teilatuan kokaturiko irriaren bozgorailuak entzuten zirela jakingo balu? Zer, herriaren goialdeko muinean eraikitako gompa-tenplurako bidezidorretan irri-laguntza musikal berbera ezagutuko balu? Berak, haraneko albatari legez, esango lioke sherpak zirela oraindik ere, aitona eta osaba bezain sherpa, belaunaldiz belaunaldi zetorren herri menderakaitzaren ordezkari, sherpa izate gogoangarriaren katebegi, Himalaiako jenderik errespetatuenaren sokako zurda amaiezin.

Irratia legez, berdin-berdin gertatzen zen albatari lanetarako zituen tresna modernoekin, altzairu eta gomazkoak asko, berdin behi, bufalo, ahuntz zein idiei ematen zizkien botikekin, aitaren garaietako egurrezko tresna eta belarrekin zerikusi gutxi zutenak. Bere auzokideetako nork ez zion onartuko altzairu pintzekin bere zekorra zikiratzea? Nork deituko zion harana zintzur bihurtzen zen parajeen bizi zen osaba Pembari, bere 80 urteak beteak zituela han bakardadean bizi zenari, belar eta ukenduekin ardiak sendatu ziezazkion? Onartua zen sherpen munduan garai aldaketa, eta “aita, ez zaitenez nirekin haserretu, ezin dugu besterik egin” ziotson gauetz ametsetan agertzen zitzaionean.

Nola ez zuten mundu aldaketa onartuko, hark ekarri bazien etxean zuten eta herrian bakarrenetarikoa zen auto-bateria, pare bat bonbilla argitu eta sakelakoak kargatzeko balio ziena. Nola ez, jakinik eskolako nepalera narrasa alboratuta Kathmandun hain ilustratuki ikasitako estatu-hizkuntza anpulosoari esker bere maila erakutsi zezakeela herrikideen miresmenaren aurrean. Zela sukaldean hiriburutik etorritako lehengusuarekin oratoria erakusketak eskainiz familiari eta bisitariei, zela herri osoa biltzen zuen eskolako biltzar nagusian hitz dotorez aurkezpenak eginez, zela eskualdeko hauteskundeak zirenean eskualde burutik zetozkion alderdi politikoetako ordezkariekin jendaurreko elkarrizketa goi mailakoak izanez.

“Aita, nola ez onartu mundu berria, horrenbeste gauza on ekarri dizkiguna! Eta ekartzeko dauzkana! Erakutsiko dizkizut etorri ahala” - ametsetako solasaldietan bere jarrerak azalduz behin eta berriz.

Bere garaian, alabak herriko eskolatik bailarako institutura bidaltzeko unea heldu zenean, zalantzak izan zituen. Emaztearekin batera, luze joan zen erabaki hartzea. Senide guztiek eman zuten euren iritzia, sherpen artean familia kontuetan ohitura zenez. Gutxi batzuk baietz, alabek institutura eta jarraian Kathmandura joan beharra zutela, al baitariak izan zuen aukera berbera haiek ere merezi zutela. Gehienek ezetz, ez zela komeni neskato haiek ingelesa gehiegi ikastea, ezta nepalera ondoegi menderatzea, are gutxiago kanpoko ideiekin beraien buruak korapilatzea.

Tendik estuasunak pasa zituen erabakia hartu beharreko uda hartan, eta azkenean senari jaramon egin zion: behin al baitaritza ikasita berak begirunea irabazi zuen herrian. Bada, bere alabei ere berdina opa zien. Jakina, ikasi edo ez ikasi, etxe sherpa handienetako semeekin ezkonduko ziren, haien herrira bizitzera joan, izen oneko andere errespetatu izango ziren. Onartzen zien baina, bere emazteak egin zuenaren aldera, 18 urterekin beharrean 23 urterekin bihurtzea emazte.

Behin erabakita, enbata sutsuak bizi izan zituen hiru harriko sua erdigunean zuen lokatz eta banbuzko horma eta habedun sukalde hark. Ez zuen horrek Tendi bere hautuan kikildu. Alabak betiko neska sherpa gisa heziak izango ziren, ama eta aitarekiko begirunean, etxeko lanetan, soro eta ikuilukoetan, erlijio budistan heziak izango ziren, jaietan sherpa-familia handietako jendeek ohi zuten lez jantziko ziren, sutondoko sekretuak izebekin ikasiko zituzten, Pemba aitona-osabarekin erritual tradizionalekin emakumetuko ziren, sherpa kantuak ikasiko zituzten... baina institutura eta unibertsitatera joango ziren bere esku zegoen bitartean.

Eta XV. mendean Tibetetik hegoalderantz Himalaia gaur egun bizi ziren eremuetara gurutzatu zuten sherpen artean lehen familietakoak zirenez, herrian jabe zituzten lurren uzta-errentak eta Estatuak emandako bere al baitari soldatak hor zeudenez, dirua bazegoen horretarako. Horrek ez zuen aitarekin ametsetan izaten zuen kontu hartzean lotsaraziko.

Osaba Pembak ere horrela aitortu zion behin oihanean 3 egun eta gau oso beste aldean eman ondoren. Zuhaitzak, ur-jauziak, haizea, anaia-arrebak, arbasoak aurrez aurre eta norbere baitara sartzen ziren beste alde hartan sartu eta irteten zen Pemba, eta bere hitza izan ohi zen azkena Tendirentzat: Shampalmu eta Mik Kathmandura joan beharra zuten ikastera. Ez baziren joaten, urrutirago joan beharko zuten, askoz urrutirago, munduaren bestaldera arroz-biltze

lanak baino askoz latzago ziren mando-lanak egitera. Horrela ikusi zuen Pembak beste aldean emandako hiru egun haietan zehar.

Ikusmira iluna, hitsa, dongea.

Zalantza pindar oro haizatu zion osabak Tendiri beste aldeko joan-etorri hartatik bueltan, erabat olioztatuta, biluzik, sukaldean arrastiriarekin agertu zitzaionean.

“Sartu osaba, zer dakarkiguzu oihanetik” - espero gabeko agerpenarekin izutu xamar.

“Iloba Tendi, alabak ez itzazu presaz lokatu. Presak katez jositako mundu basati eta gaiztoetara eramango lituzke. Ez badituzu alabak oihanetiketik betiko aldendu nahi, ez itzazu ezkontzetan lotu unibertsitatetik bueltatu arte. Dawak esan dit”, eta hori luzatuta sartu bezain misterioetsuki bueltatu zen gauaren beltzera.

Mik eta Shampalmuk arbasoen oniritzia zuten beraz. Pagotxa sherpa herriaren munduan. Haien esku egongo zen ikasketetan aurrera egitea. Ororen gainera, baina, sherpen munduak zutik zirauen. Dena bere tokian. Horrek ez zuen ezertan aldatzen betiko mundua, banbuen artean Katchenjungari lainoen artean begiratzen zion mundu ttipi, busti eta koloretsua.

Mundu hark jarrai zezan, gosaritarako tchang edo arroz-esne partiketak, artaburu-erreketak, Shampalmu eta Miren esku. Horrela ari ziren goiz hartan ere bi ahizpak. Arin-arin zebiltzan. Arroz esne tchanga epel hartu, barrena pixka bat berotu, katilukada bana bertaratutakoei eskaini, gose zenak Shampalmuk aurretiaz piztutako suaren txingarretan artaburua erre, erabilitako katiluak uretan pasa eta egina zegoen egin beharrekoa.

Institutuan goizeko zortzi eta erdietan hasten ziren klaseak, hortaz, herritik bi ordu lehenago atera behar zuten ahizpek txirrinak jo baino lehen ikasgelan egoteko. Beraz, gosaritako lanak zenbat eta laburrago, orrazketa lanetarako denbora gehiago. Institutura abiatzeko apainketak elkarri egiteko lanetan patxadaz ibiltzen baiziren Shampalmu eta Mi goizero. Lanbro arteko lamiak balira legez, hitzik esan gabe, alkandora zuri-gona grixeko uniformeak jantzita, ezkaratzera etxeko aulki bakarra atera, bertan eseri eta batak bestea ile beltz bizi dirdiratsuko adats luzeen lisaketa erabatekoa lortu arte orraztuz.

Inoiz, lehen solairuko gela txikian uda horretan lo egiten zuen gonbidatu zuria gosaltzera jaistean, bera balkoian agertzearekin bat atariaren aurrealdetik sukaldarantz egiten zuten jauzi, ezkutura berehala. Bisitariak magia hor zegoela nabaritzen zuen, elkarbanatzen ez zen horretan, etxekoena baino ez zen horretan, sherpen artean intimitatea bezalako etiketarik gabe, etxeko atarian eginagatik, begi berrietatik urrun gorde nahi zen horretan.

Egun hartan zuria esnatu gabe zen oraindik, beraz lasai ari ziren biak lanbro artetik ihesean datozen eguzki-pindarren epeletan etxaurreko zabalgunean, lamia-lanetan, orrazi luzeari eraginez. Ikusle zituzten artasoroen onespenez, zutoin-luze batean eskegitako koloredun banderola budisten azpian, amaigabe bihurtu arte luzatzen zuten masajearen gozamina loriatsuki aldarrikatzen.

“Zer Mi, joan beharko dugu ba” - orraziaz azken joan-etorrietan Shampalmuk.

“Bai, ez dut atzo bezala hor goiko zuri horrek gu orrazten ikusterik nahi” - aulkitik jaikitzeke keinuak eginez.

Orrazia eta aulkitxoa jasota, etxeko lanetarako erabiltzen zuten sukalde ondoko gelatxoan gorde, liburuak eta aterki bana bildu, eta etxetik abiatu ziren ahizpak.

Behin etxaldearen eskumaldean zetzan harlauza-mailadiatz bi metroko horma libratuta, Jetsun izan ohi zuten zain auzoko etxe-atarian. Eurek bezalakoxe nerabea zen Jetsun, hamasei urte, alkandora zuri, gona grisaxka, familiako 8. seme-alaba. Bere aurreko zazpi neba-arrebak herritik kanpo lanean Kathmandun, Saudi Arabian, Malasian. Bere atzetik zetozen etxeko beste hiru pottokoak herriko eskolan geratzen ziren, Mi eta Shampalmuren neba gaztea bezalaxe. Biko taldea hirukoa jada.

Beste ehun metro artasoroetatik jaitzi, iturrian arropa garbiketetan edo goizeko lehen urekin freskatzen dauden auzokideak agurtu, adinkiderik ez zuten etxe pare baten aurrealdeak gurutzatu, eta bertan herriko eskola. Urteak eman zituzten han institutura jaitzi baino lehen, gutxienez bost bai, gehiago ere agian. Zaila egiten zitzairen, bai horratik, handik igarota melankoliaren harrak barruan sigi-saga ez egitea. Institutua luzaz zen eraikin hobea, berria, argindarduna, patioan ez zuen ur-putzurik, lokatzik ez zen ageri, ikasgelak garbitu egiten ziren noizean behin eta irakasleak hobeak ziren.

Hori guztia jakinda ere, hiru neskatoak halako zera batek igurzten zituen eskola aurrean zegoen ume-mordoaren zalapartaren erdian abiada bizian zihoazela. Futbol zelai, auzoko hurrenaren bufalo bikotearen bazkaleku eta aldi berean neska-mutilen jolas patio zabal zenaren azken ertza pasa arte, zizare-zera horrek goizero leunki egiten zien bisitatxoa. Ttak-ttak, ttak-ttak. Nolabait bertatik zenbat eta urrunago, libre izateko aukera gutxiago zutela jakingo balute lez. Nerabearoa bitarte, eskola zulo hartako horma haiek epemuga jakina zuten euren irrien babesle balira lez.

Hala ere, institutuko nahaspila ere maite zuten sherpa gazteek, bai alajaina. Halako hau sherpa, bestea linbua-a, hangoa rai-a, harakoa tamang-a... aukeran koloreak, hizkuntzak, aurpegierak, erlijioak. Klaseak nepalera ziren, eta denak ziren nepaldarrak, baina etnia eta familietako ezkontza-araueetatik oraindik salbu, gustu kontuak askeak ziren euren adinean. Eurek sherpa izaki, bazuten hinduek bekaitzaz desio zuten abantaila bat: tibetar jatorriko budisten artean ohi zenez, ezkontza-aurreko sexu harremanak ez ziren bereziki zigortuak. Beraz nolabaiteko askatasuna zegoen ageriko ezer gertatzen ez zen bitartean.

Horrelaxe egin zuen ez zela hilabete ere izango taldera aldapa beheran hurrena batuko zen Sharitak. Plaza nagusi funtzioa betetzen zuen eskola alboko futbol zelaia igarota, maldan behera 100 metrora bizi zen, banbuz, lastoz eta lokatzez eraikitako etxola txiki batean. Ama gaztea, bera eta beste bi anaia gazteago bizi ziren gela bakarreko txabolan, oilar-oilo gutxi batzuk eta zerri bakarrak lagundurik. Aita mendian turistekin zuten lanean, apenas ez zen agertzen herritik. Beste familia bat ez ote zuen osatu hasiak ziren esaten herrian. Bada etxeke egoera zaila gora behera, Sharita herriaren pareko mendilerroan garaiera antzekoan ikusten zen rai komunitate bateko mutil koxkor batekin txora-txora eginda zegoen. Institutura heldu berritan haren ibilerak itsutu egin zuen erabat, eta tematu egin zen. Badur izeneko mutilak, hindu erlijioa izaki, arazo gehiago zituen horrelako buruhauste txiki batean hasi baino lehen, beraz Sharita oso gustuko zuen arren, uzkurra zitzaion egunerokoan.

Suertatu zen baina montzoi garaiak eman ziela aukera. Demaseko ur-jasa batek haranaren sakonetik herrixketarako bidexkak erreka bihurtu zituen, eta inork ezin izan zuen etxera bueltatu. Eta behin institutuan ostatu hartuta, ilunpeak, nerabearoak, eta bereziki lagunak "ni hor, zu han, utzi niri manta" eta abarrek borobildu zuten giroa, aurrez aurre paratutako mendi kasko biren magaletako bi kimuek goxo-goxo igaro zezaten gau umel hura.

Shampalmuk igarri zuen Sharita masailetakoko gorriak kolore biziagoa hartu zuela ordutik. “Nik ere nahi dut”- izan zen bere ondorioa, “ez dut zertan itxaron aitzak sutondoan senarra aurkeztu arte”.

Goiz hartan presaka zihoan maldan beheara lau neskek talde txoa, herrixka utzi orduko seikoa bihurtu zena. Dorjee eta Jangmu ziren zuri eta grixeko talde txo hari batutako azken neskek adats ilunak. Segituan, herria utzi bezain laster, neskek zegoen formalitate oro ahantzita, builaka hasten zen koadrilatxoa. Etxolarik ez jada, auzokorik ez, lotsak desagertuak. Automatikoki metamorfosia jasanda bezala, euriarekin zein euririk gabe, gandu itxitan zein eguzki berotan, norberak bere aterkia ireki eta multzo koloretsuak osatzeari ekiten zioten sei adiskideek. Maldan beheara ziztu bizian, harri-koxkorrek baino lokatzak agintzen zuen zidorretan sugearena egiten joan ohi ziren, nork arinago hartuko burua, nork moztuko bidea bihurgunean, nork ezin eutsi behearako erritmoari... lerroa hausten zuenak jolasa galtzen zuen. Mendingo ibiltzen ohiuak, artasoro malkartsuetan txikitatit lanean, inor gutxi asmatuko zuen institutuko ilaran txukun-txukun, arropa garbi Kathmandu, Londresen zein New Yorken askok amestuko luketen dotoreziaz agertzen zen neska sherpa talde txo hura ero moduan ibilia zela ira eta garo erraldoien arteko aldapetan ordu erdi lehenago.

Haatik, sherpa izan arren, aldapa gorak ez zituzten horrenbeste maite. Hortaz itzulerako bidea lasaia izaten zen. Ez zuten gainera euren jolas sekretua inortxok ere ezagutzerik nahi, euren arteko gauza zen. Inoiz beraiekin auzokoren bat jaisten zen bide erdian arroila eskualde-bururantz gurutzatzen zuen zubira arte. Bada egun horietan euren bakarrik geratu ezik, ez zegoen suge-jolasik. Berdin, euren baten bat falta bazen. Berdin aldapa goratan. Horietan guztietan aterki laranja, berde, hori, gorri, urdinak euria ari zuenean baino ez ziren irekitzen.

Jolasak ematen zien poza gehiago zen inork atzematen ez zela, beste edozergatik baino. Ez zuen inork ezagutzen, ez zuen izenik, ez zegoen jolasik. Shampalmuk lasterka, jauzika, saltaka, kolore-saltsan ase arte aritu ondoren, institutua oihan ertzean agertzean aldarrikatu ohi zuen bezala: “basurdeak, hegaztiak eta oihanera beste aldera sartu-irtena egiten duten jende magikoak dira gure suge-jolaseko ikusle, beste inor ez. Gurea da hau, beste inorena ez”.

Arratsaldero herrian sartzen zirenetan eskola pareko zelaian zegoen edonork nabaritu zezakeen hain txintxo, burumakur ia, lainopetik hezetasuna gogaitu nahi ez balute bezala,

banaka-banaka pasatzen ziren neska koloredun haiek bazutela sekretu hurbilen bat euren artean gordeta. Isilpeko itunen bat zeukatela. Eta inork ez zuela haren arrastorik. Ez bazkarako futbol zelaian instituturako adinik ez zuten gaztetxoak aurrez aurre jartzen zituen jolasean zebiltzanek, ez artasoroetan mozketan ari zirenek, ez bufalo-bikoteari goldea jarrita ildoak jorratzen oinutsik ari zenak, ezta herrixkako eskolatik atera berri zen bost irakasleko ekipoak. Zoro moduan ipotx libreen mundu librean atzera eta aurrera zebiltzan hiruzpalau urteko haurrek zer esanik ez. Inortxok ez zuen haien siga-saga ezkutuaren berri.

“Shampalmu! Zatoz gurekin jolastera, gaur mutilek ez dute egun onik. Errepasoa! Galanta! Zurekin ekipoan, luzarorako isilduko ditugu!” - oihukatu zion Namkha zalapartariak.

“Ezin dut Namkha. Aita eta ama zain ditut. Gainera ez dut batere gogorik” - lehor Shampalmuk.

“Tira! Txokoan ditugu! Apal-apal aterako dira hemendik!” - mutilen taldea erraz garaitzen ari ziren, eta haren poza partekatu beharra zeukan. Eta bide batez gizontxo aurkariak lotsarazi.


Futbol zelaiko egurrezko atearen inguruan aritzen ziren eguna joan eguna etorri hain maite zuten jolas hartan. Bi talde, urteak gorabehera, mutilak alde batean, neskak bestean. Lurrean makilaz marraztutako hiru lerro zeharka eta beste hiru kontrara, erdiko guneeetan lerro bikoitzarekin harrapari-taldearen eremua markatuz, bederatzi lauki handiz zehaztutako jokozelaia. Beste taldeko inork ukitua izan gabe jolas eremu osoa alderik alde gurutzatzen zuen taldea irabazle. Eta berriz, beste behin ekiten zioten posizioak trukatu gabe. Bakar bat ukitua izan ezkerreko, talde aldaketa eta harraparia harrapakin eta alderantziz. Betiere, harrapariak ezin zuen lurrean lerro bikoitzez marraztutako lauki-guneetatik atera, eta hortaz, ehiza ez zen erabat askea. Arautua eta espazio mugaduna baizik, mundua lez. Eremuz eremu mugatua, toki bihurtutako espazioz zehaztua.

Zelai-ertzetik jolasean ari ziren adiskideei begiratzuz Shampalmuri harra agertu. “Tira jolastuko dut, gaur ez dut etxera joateko gogorik” – ohikatuz bat batean – “eta hauek gure menean izanda” – algara betean mutilei begira – “ez dut aukera pasatzen utziko!!!!”- eta laisterka abiatu zen nesken ekipoaren aldera.

“Onaaaa Shampalmuuuuu!!!” - irriz eta oihuz Namkhak eta jolasean zeuden beste hiruzpalau neskatok.

Shampalmuk liburuak, arropa, guardasola zelai ertzean utzi, eta bere soineko zuri-grixaz herriko lehen hezkuntzako alkandora eta gona grisaxka-urdinei batu zitzaien gogo biziz.

Mik, aldapatxo baten gainetik begiratuz, desordutan zebiltzala jakinik, bere baitarako etxeratzean izango zuten familia-elkarrizketa prestatzen hasi zen nesken taldearen garaipenak bata bestearen ondoren txalotzen zituen aldi berean.



METAK

Aldatzen behera zihoan hirukoteak egurrezko egituran igota zeuden artzain senar-emazteak agurtu bezain laster Antharkek proposatu zuen: “sar gaitezen euren txabolara, gutxienez chang katilukada bat emango digute. Eta zorte apur batekin, ardi-esne zurrutada bat irabaziko dugu”.

Lainoa belaze malkartsuari pega-pega eginda zegoenez, hamar metrora zegoen txabola ozta-ozta baino ez zen ikusten. Udaren gorenean, ganduaen bustialdia desatsegin bihurtzen den mailatik behera ihesi zihoazen. Herrixka gainetik begiztatzen zuen gailurren ertza eta haren babesean ezarritako hilerri budistara arratsalde pasa goiak ziren Antharke, Tsiring eta azal zuriko bisitaria.

Esan eta egin. Herriko etxeen aldean arras xumea zen ardi-artzainaren solairu bakarreko banbu-etxearen sabaiarekin oztopo ez egiteko makurtu eta han sartu ziren hirurak. Artzain senar-emaztea talaiaren gainean igota, artabizarrak eta garoak oinutsik ari ziren zapaltzen, bazkaleku tenteak metaz dotoretzeko adorez beterik lanean. Lainoa izanagatik, meta ia bukatuaren begiratokitik nor pasatuko aiduru zeuden, agian hirukotearen zain, agian oihaneko izaki iletsu bi-hanketakoaren zain, agian hamar minutura zetzan Lhonakeko hilerri sherpatik ihes egindakoren bat noiz agertuko zain.

Ardi galduen bila zailduta, hodeien barrenera begiratzeko ahalmenaren jabe, haiek bai ikusi urrunean agurtu berria zuten hirukotea euren txabolan sartzen, eta emakumeak esan zion larruzko arrokekin jantzia zen gizonari: “segi muturluze horiengana eta atera iezaezu katilukada bana chang. Ezta okurritu ere esne tanto bat bera ere ematea. Gaur jaitsitako apurra gauerako ahitzen bazaigu, gureak egin du. Ez liguke barkatuko. Joan daitezela alkatearen etxera behi-esne eske”.

Aginduei jarraituz, emaztea meta lanetan utzi eta txabolara hurreratu zen jite akituko Jangboo artzain agurea. Bazkan ari zen artalde iletsua ez zen aztoratu artzainaren lasterraldiarekin, erakutsi zuen liraintasunari baino haren urrats geldoei ohituago bazeuden ere. Inoren gustukoa izan ez bisitariak norbera bertan egon gabe etxeko sutondoan zain izatea, eta arrapaladan egin zuen maldan behera bere etxolara arte.

“Arrastion!!! Hau plazerra zuen bisita!! Gainera amerikar zuri bat zuekin dakarzuela!!! Edango duzue arroz-garagardo epel egin berria ezta???”- esan zien diosalaren plantak ezinhobe antzeztuta.

Tsiring alkatearen semea zenez, autoritate kutsu batekin zeharka zuzendu zitzaion zimurrez betetako artzainari: “noiz izan duzu zuri bat zuen etxeko sutondoan eserita? Beste gauza bereziagoren bat aterako zenuela uste genuen...”. Hori esan bitartean, hura herriko etxerik txiroenetakoa zela, atzerrian zein mendian lanean seme-alabarik ez zutela, eta senar-emazteok gainaldeotan ardi-esne eta artilearekin ateratako lau sosekin bizi zirela ari zitzaion Antharke arrotzari nola edo hala ingelesera makalez.

“Tira Jangboo, ez zaitetz zekena izan. Atera gutziaren bat eta erretzeko belarren bat, hezetasuna gainetik ezin kenduta nabil eta” – Tsiringek berriz ekinaldian.


Jangbook tinko zirauen ordea. “Arroz-garagardo epelaz gorputza zuen onera etorriko zaizue, ez kezkatu. Hau hartuta, laino tartean berriz hoztu baino lehen aldapan beheara saltaka batean zaudete zuen etxe dotoreetan.”

“Eta esnea?” – Tsiringek jada zeharkakotasunak albo batera utzia.

“Esne bila gero datorkigu oihaneko bisitaria, zuen lagun zuria baino askoz bereziagoa, muturfinagoa eta trumoi-haserrealdikoa. Beraz uste baduzue zuen laguntxo berri hau limurtzeko gure txabola txikitu eta ardi guztiak hiltzeko kapaz den oihaneko basagizona bere onetik ateratzeko arriskua hartuko dugula, jai duzue. Hartu ahalik eta lasterren hemen duzuen chang epela eta alde egin hemendik, arren”.

Hori esanda, irribarrez betiere, sukaldetik atera, eta etorri bezala ortozik belazean gora laino artera sartu zen ostera Jangboo artzain akitu, zimurto, begi txiki txinpartaduna.

Hirukoteak, arroz-garagardo zuriari zurrutean, soarekin isilik jarraitu zion agurearen urratsei, ganduaren mihise zuriak artzaina haien ziztadetatik babestu zuen arte.



TSERING LAINO ARTEAN

Goizero-goizero chang edo arroz-esne katilukada handi bat hartu eta amari agur esan ondoren, kaiera eta arkatza besapean, Tseringek eskolarako bide-zidorra hartzen zuen. Ordurako zelaiei itsatsirik egoten zen gandua altxatze bidean egon ohi zen, eguzkiaren eta apar zuriko hodeien arteko lehia gori-gorian zela.

Herrikideen kontrara, lainoak irabazten zuen egunak zituen maiteen Tseringek, behin hodeien barnera sartuta mendiz mendi hegan hasten zelako, basoz baso, haranez haran. Buztin eta banbuzko etxetik eskolaranzko xendrak ezin konta artasoro eta basoxka gurutzatzen zituen, beti malda oihantsu luze eta sakonetan barrena.

Ur-latsen doinu kantaria, lore eta zuhaixkek populatutako baso-zoru aberatsa, belar bustia, lokatza eta izainak ziren bere ohiko lagunak eguneroko goiz ibilaldi horretan, baita bere aterki koloretsua ere. Laranja, berdea eta horixka zen, zabala, Kathmanduko jauntxorik dotoreenak papartsu erakusteko modukoa. Eta egunero zeraman berarekin, behin laino azpira sartuta, hegan egiteko tresna bihurtzen baizitzaion aterkia.

Lainopean begiradetatik desagertu bezain laster, aterkiak abiada biziz eramaten zuen txoko ezkuturen batera eta han ematen zuen tartetxo bat gustura: izan zitekeen ur-jauzi zaratatsu baten altzora, izan zitekeen Suketahrreko jaiak ospatzen ziren goi-lautada belartsura, izan zitekeen herriko maldarik aldapatsuenetara, non ardi bazkariei begira geratzen zen, izan zitekeen hain gustuko zuen Pathi ikaskidearen ohatzearen parera nola esnatzen zen ikusi ahal izateko... Nahi zuen lekura eramaten zuen aterkiak, eta lainoak bere goizeko bidearen zati luze bat hartzen zuenez gehienetan, klasera 9etarako heldu orduko Tseringek egina zuen eguneko bidaiarik desiratuen.

Bere ama Ningmak harrituta begiratzen zion etxeko eskatzetik hain pozik abiatzen zela ikusita: “zer demontre ote dabil ene txiki hau beti garaiz, beti irteteko amorratzen ibiltzeko!”. Izan ere, eskolatik ordu erdi ingurura bizi zen Nuru familia, eskola eta futbol-zelaitik (herrixkako plazatik) mendirantz haranean gora, eta beste haur eta gaztetxo guztien kontrara, Tseringek beti ahal beste luzatzen zuen etxetik eskolarako bidea, nagusiki goizean goiz. Bazkalorduan zein iluntzean gutxitan izaten zuen galtzeko arriskurik. Noizean behin Tikpa bere kide estuenarekin

soro berrietako arta-enbor goxokiak jatera joaten zenekoren bat, Pathik etxeke teilatura joateko esaten zion arratsalderen bat... gutxitan orohar. Arroza bete katilua irensteko presa izaten zuen, eta askotan amak eskola ordua bukatu eta 15 minutura sutondoan eserita zuen Tsering bere begi gris handiekin adi-adi begira gosearen mirabe. Horregatik ez zuen ulertzen amak zein arrazoiz abiatzen zen goizetan hainbeste denboraz Tsering klaserantz. Ikaskideei galdetua zien, bidean zeuden etxeetako auzokideei, bere lagunei, bere sekretutxo guztiak zekizkien Pathiri... arrastorik ez. Tsering, bere bi koadernoak, arkatza eta aterkia. Hori baino ez. Eta uda bukaeran, aldirik aldi, etxera bueltan amari oparitzen zion lore more eta hori eder horietako bat alkandoraren eta lepoaren apaingarri.

Azkenaldian egoera are ulertezinagoa zitzaion Ningmari. Azal zuriko atzerritar bat etorria zen herrira eta goizetan ordubeteko borondatezko ingeles lezio irekia zegoen eskola hasi baino bi ordu lehenago. Beraz, bere Tsering maiteak etxetik 8etan atera beharrean, 6ak aldera egiten zuen ospa azken asteetan: lansaria irabaztera doan dotore jantziriko gizontxoaren seriotasunez bustitako irteera antzezten zuen haurrak, nolabait ama irteera ordu goiztar haren ezinbestekotasunaz sinetsarazi nahirik edo. Antzezpen hura gorabehera, Ningmak ezin zuen ulertu nondik atera zituen bere zazpigarren umeak ohitura bereziok.

Bufalo-goldean eta beso-gerri lanetan oinarritutako nekazaritzatik ateratakoa osatzeko, noizik eta behin oihal-salmentan aritzen zen aita Sonamek Kathmandura eginiko joan-etorrietako baten ekarritako ditxosozko aterki hura zertarako behar ote zuen ere etengabe zerabilen gogoan, goizetan ez baizuen inoiz euririk egiten. Arrosatik hori-metalizatura zihoazen ziztadak erakutsi ahala, eguzkiak hodei-itsaso amaiezina argitzen zuen urrutiko Katchenjungaren bizkarretik, eta itsaso horretatik lainoa maiz igotzen bazen ere herrixka zegoen goi-malda heze haietara, euria arratsaldetan soilik egiten zuen haranean. Horrez gain, aterkia bera ia-ia Tsering bera baino handiagoa zen!

“Zer entzungo ote zuen eskolan ume honek hara eta hona aterkia gainean ibiltzeko!! Edo agian Pathik esango ote zion hitz politen bat aterkiaren inguruan??” - Ningmak bere kolkorako tramankulu harekin ikusten zuen bakoitzean.

Sherpa kulturean aterkia ez da tresna berria, luzaroan herriko egun handietan familiako emakume helduenak erabili ohi duen apaingarria izan da, dela neguko uzta-festa handian, dela

ezkontzetan, hiletetan zein eskualdeko agintariak herrixkara bisita kortesiazkoetan egindako harreretan. Ez zen euritik babesteko tresna baina, are gutxiago lainoan ibiltzeko gailua. Nolanahi Tseringek bere adiskide maiteen bihurtu zuen guardasol hura, eta ez zegoen hura eskuetatik kenduko zionik.

Eskola zazpi atedun bi solairuko eraikin zaharra zen, Sukhetarreko adreiluzko eraikin bakarrenetako bat, erdi eraitsirik zegoen gomba edo eliza budistarekin batera. Baziren ere aberatsen bizpahiru adreiluzko etxe handi, irratia ehunaka metrora entzuteko moduan izan ohi zuten etxe haiexek hain zuzen, biak ala biak inguruko azeri eta belaxkak txunditzeko moduko aberastasun markak. Bada, eraikin zahar hartako beheko solairuko bigarren atean sartu eta azken ilaran zuen eserlekua Tseringek eta atsedean bere aterkiak. Oinazpitan tinko gorde ohi zuen klase ordutan, eta bisitari zuri berri haren goiz-klasetan leku finkoa galtzen zuenez, berari eskatu ohi zion aterkia gordetzeko ordubetez, ezin zuela behar bezala zaindu bere klaseak iraun bitartean eta mesedez bere kideengandik babesteko bere harribitxirik preziatuena. Ez zuela galdu nahi asko maite zuelako eta berari esker bidaia zoragarriak bizi zituenez ez zuela arriskurik hartu nahi.

Azal zuriak ez zuen sherpa hizkuntza batere ulertzen, tutik ere ez bazkalorduko ezinbestekoak salbu, eta Tseringek ere ezer gutxi hitz egiten zuen ingelesez jadanik bi urte zeramatzan arren eskolan ingeles klaseak jasotzen. Dena den, horrenbesteko pasioz hitz egin zion Tseringek arrotzari, berehala ulertu ziola garrantzitsuegia zela aterki hura ordubete hartan ikasgela hura okupatzen zuen jende oldearen olatupean bere kabuz uzteko. Goizetako lezio hark egun batzuetan ingelesa ikasteko ordua baino gehiago ematen zuen urrutitik etorri berria patxadaz ikusi eta entzun ahal izateko azoka moduko bat, hirurogeita hamar lagun ere biltzen zuena, eta ulergarria zitzaion arbelan hizketan ezartzen zuten gonbidatuari Tseringen aterkiarekiko kezka.

Klasea bukatuta, irakaslearena egiten zuen zuriak inoiz ikusia zuen Tsering herri-gertakari haren eta eskola-ordu arautuen arteko gosaltzeko atsedenaldira oinutsik laino artera aterkia eskuan sartzen, gutxitan ikusitako dotoreziaz abiatzen ikusi ere.

Haren ikusmiran, behin baino gehiagotan aurkitu zuen bere burua dotoreziaren balio unibertsalaz pentsatzen, nola dutxatu gabe, xaboi gutxi dastatutako aurpegiz, izainen laztanek odoldutako bernadun ume batek, laino artera aterki zabal eta koloreduna eskuetan

abiatzerakoan Europako dotorezia neurri guztiak erraz hautsi zitzakeen, nola europar askoren dotoreziarako mugak diruz ezin diren konpondu, eta ea agian, Tseringek bezala, belarra ortozik zapaltzeak emango ote liekeen horretarako gako zuzena.

Behin klasean eserita zegoela, nahiz eta adi egoten saiatu eta lagunek ezer ez nabaritu, Tseringek ezin izaten zituen ahaztu tartetxo bat lehenago bidean bizitakoak. Abila zen ikasketetan, oso, hainbestearaino non hirugarren urratsera aldatu zutela adinaren arabera bigarrena zegokion arren. Gainera bere anaia-arreba zaharragoek ez bezala, gutxitan joan behar izaten zuen aitarekin oihanera egur bila edo arto eta arrozetarako lur-sailak goldatzera, beraz ez zuen usu klase-ordurik galtzen. Horrela, bere ama Ningmaren pozerako, irakasleen goraipamenak zorroan zituela bueltatzen zen etxera askotan. Txiki-txikitatik gainera, hainbestearaino, aipatu bezala, 2. urratsean urtebete nagusiagokoekin sartu zutela ikasgelan.

Nolanahi, ez zuen galtzen aukerarik klase orduetan berriki gozatutako ibilaldia birpasatzeko. Horretarako lezioa ahots ozenez behin eta berriz errepikatzen zituzten orduak zituen gogokoen, Lama maisua grafia eta kultura tibetarra irakasten aritzen zen haiek hain zuen, ia esaldi bakarra errepikatzen ematen baizuten ordubetea. Kantu bat sortu arteko doinu ezberdinez, hori bai, bestela klasean bildu ohi ziren 20 gaztetxo sherpak lozorrotik ateratzea ezinezkoa egingo baizitzaion Lamari, bere errieta alferrikakoak eta guzti.

Egia esan Tseringek ez zuen apropos bilatzen gertatzen zitzaiona. Aterkia eskuetan lehenengoz hartu zuenetik jakin zuen aitaren opari hark berezitasunen bat zuela, harana zubi lez ertzetik ertzerantz estali ohi zuen ortzadarra gogora zekarkion oihal makildun hark zirrara berriak ekarriko zizkiola ordutik aurrera. Eta horrela izan zen bere bizitzan lehenengoz eskolara abiatu zeneko hartan. Bi urte pasatxo joanak ziren laino itxia artasoroei itsatsia zegoen goiz hartan, 3 urte bete berriak zituen goiz hartan, aterkia hodeien artean ibiltzeko ireki zuen hartan, aterkiak ezer esan gabe gorantz igo eta igo eta igo eta igo egin zuenetik. Igo eta igo eta igo eta.. blaust, urtebete lehenagotik ikusi gabeko anaia Lakparen aurpegia parean agertu zitzaionean gelditu.

Nola zen posible? Lo ote zegoen oraindik? Normala ote zen eskolarako bidean bat-batean urruti lanean zeukan anaiarengana joatea (Tseringek oraindik ez zekien non zegoen Qatar, ezta zergatik ez zuen bere anaia azken urtean ikusi) ganduak bera jan bezain laster? Berandu helduko ote zen eskolara? Ikusi ote zuen anaia Lakpak, han, bere alboan, aterkia zabal-zabalik

berari gertutik so eginez? Zergatik zegoen hain arraro jantzita eta gerrian, sherpen aitzotzarraren orde, burdinazko tresna arraro hura eskegita?

Hasiera batean izutu egin zen, bere umetasunak babestuta ez gehiegi, baina hura arrunta ez zela jakiteko adina bai. Sutondoan jaioa eta hazia zen. Aita-amen, aitona-amonen, osaba-izeba, lehengusu eta auzokoen kontakizunak izan ziren bere txikitasuneko bazka bakar, telebista eta irratitik urrun. Eta inortxok ere ez zuen inoiz aipatu gosaritarako chang-a edanda eskolara bidean lainoak haur sherpak bidaia luzeetara eramaten zituenik. Haurra zen, inozoa ez!!

Aditua zuen sherpen artean bazirela gizon ahaltsuak, belarrak eta hostoak, zizak eta lurpeko fruituak, zomorroak eta txoriak haien eskuen zimurrak bezain sakon ezagutzen zituztenak. Aditua zuen haien indarra eta jakituriak edozein herrikide sendatzeko gaitasuna zutela, haien begirada zorrotzak zure iragana, oraina eta etorkizuna lipar batean igartzeko gai zirela. Hurbil hurbilekoa zuen azti osagile horietako bat, bere aitona Tenzing haietakoa baizen, eskualdean begirune handia sortzen zuen igarlea baita izan ere. Baina aitona halakorik ez zion inoiz aipatu, ez zion inoiz ere horrelakorik iradoki, ezta pepinoa txilian bustita jatera eta tungba edo arroz-ardoa edatera etortzen zen arratsalde luze haietako solasaldi amaibakoetan ere.

Era batera edo bestera izan, bere eskolako estreinako egun hartan, aterkiak jada erdi ahaztua zeukan anaia Lakparengana eraman zuen. Ia ahaztuta izan ere Tseringek 2 urte zituen anaiak segurtasun-langile izateko Qatarrararako bidea hartu zuenean. Bada hasierako izua kenduta, anaiaren itxura berria mirestea aukera apartaz gain, joan-etorriko bidaia erosoaz gozatu zuen. Aterkia ez zuen estuegi heldu behar bere martxari eusteko, hotzik eta bustialdirik ez zuen bide osoan hartu, haize freskoaren ufada aurpegian sentsazio ederra zen, eta bere harridurarako, klasera garaiz eta bere abenturaren inolako arrastorik gabe heldu zen.

Zer gehiago eska zezakeen? Ezin jakin zergatik gertatu ote zen guzti hura, zerk eraginda gertatu zen ezta benetan anaiarekin egon ote zen edo laino artean jira eta bira ibili ote zen. Nahikoa zuen lehen eskola eguneko jantziatarako neurri-hartzeekin, banku luze baten beste 5 lagunekin eserita ordu erdiz egotearekin, berari egokitu zitzaion 14. zenbakia oroitzearekin, irakasleen izenak gogoratzearekin, eskolapeko belar-txatalean atsedendietan sortu ziren nahaste zatatatu haien erdian zutik mantentzearekin... nahikoa zuen guzti horrekin!

Nahikoa zuen, baina etxera bueltatzerakoan zeraman irribarrea ez zion eskolak eman, ezta Pathi ikusi eta klaseko bigarren lerroan bere alboan eserita egoteak ere. Horrek ere pozten zuen, jakina, baina Pathirekin egunero egiten zuen korrika artasoroetan barna, egunero jaten zituzten elkarrekin arto-zuztar gozoak, nahi zuen guztietan joaten zen lastozko teilatura berarekin barre algarak egin eta auzokoei adarra jotzera.

Oraingo hartan, irribarre txiki hura hodeien artean aterkiari helduta bizitakoak ezarri zion aurpegian.

Amak, eskolatik heltzerakoan, bi hitz luzatu eta segidan oiloei eta basurdetik zerritik baino gehiago zuen urdeari jaten emateko agindu zion. Jarraian, afaritan arroza laguntzeko zituzten barazkiak garbitzeko esan zion. Azkenik, pepino handi bat eskuetan utzi zion eta zuzen begietara begiratu: “eskolara joateko aski nagusia bazara, pepino hau txikitzeko ere bai. Hartu aiztoa eta arroza irakiten hasi baino lehen txiki-txiki eginda nahi dut”. Tseringek lasai asko hartu zuen aizkoratxo baten antza zuen aitzotzarra eta bere egitekoari txintxo-txintxo ekin zion. Hiru urterekin amaren aginduei esanekoa izan behar eta ezpata okerra zen aizto handi harekin erabilera erakustaldi apartean jardun zuen. Pepino-lanetan eskuak, hodeien artean burua, irri txikia ezpainenetan. Eta hortxe bota zion ama Ningmak: “Pathik ukenduren bat igurtziko zizun masailetan, bestela auskalo zertan ibili zaren ahoan imintzio xelege hori izateko”.

Gau hartan Tseringek, bere lasaitasun bi bider hautsian (bidaiak lehendabizi, eskolak bigarrenkoz), berehala hartu zuen lo sutondoaren epelak besarkatutako etxeko lastozko ohatze bakarrean, amaren arnasa kantari goxoari oihartzun eginez.

Qatarrera aurreikusi gabeko bidaiak izan zuen lehena Tseringek. Eta hara nola, berak ezer ere ulertu gabe, hasi zitzaion bidaiatzeko gertaera berezi hura noizean behin jazotzen. Kathmandura lehengusuak ikustera, eskualde-burua zen Ilamera alpinistak zekartzaten hegazkinak nola lurrartzen zuten ikustera, kaskoen bestaldean zegoen Sikkimeko erresumara bertako jauntxo izandakoen jauregia ikustera... Beti leku berriak, berak munduan zeudenik ere jakin ezin zezakeen lekuak. Eta beti aitak oparitutako aterkia eskuetan laino artera sartzean.

Bidea ikasi zuen Tseringek lau zapabost bidaiak egin ondoren: eskolara goizetik, aterkia eta lainoa, laino itxia, gandua, bidaiak.

Tseringi harra sartu zitzaion barru-barrura, erraietaraino. Eta behin eskolara berandu heltzen ez zela eta bere bidaietaz inortxo ere konturatzen ez zela ziurtatuta, ibilaldi goiztar haien harra hazi eta hartza bihurtu zitzaion.

Giltzarriak ezagutzen zituen. Beraz, zertarako zain egon?

Hasieran lainoak bera irentsi arte ez zuen aterki-jauzirik gozaten, baina gerora bere burua gandu-ehiztari bihurtu zuen: etxeke ezkaratza utzi eta lurrari itsatsitako hodei bila aritzen zen etenik gabe. Etxe aurrean, 1.000 metrotako malda luzearen balkoi paregabearen, mailadi gisa antolatutako artasoroak ziren nagusi. Haietako biren arteko bidezidorra zuen irteera bakar. Hura hartu, latsa baten gainetik salto egin eta makina bat lur-txatal ertzetik gurutzatuz irtetzen zen etxaldetik eskolaranzko norabidea hartuta. Eguna argia izanda ere, eguzkiak desafiorik onartu gabe bere besarkada zabala ezartzen zuenean ere, artasoro terrazadun aldapatsu amairik gabeko haietan egoten zen goizero-goizero hodei multzoa itsatsirik, jolasean bezala, Tseringen zain bezala. Zer besterik behar zuen Tseringek haien atzetik erleak erlategiaren inguruan bezala eroturik abiatzeko?

Badaezpada, etxetik apur bat urrundu arte ez zituen bere benetako asmoak erakusten, amak ikusi ezkerok zer esango. Hori bai, lasto, banbu eta buztinezko teilatuaren ikusmira desagertu orduko, oinutsek ez zioten oztopatzen abiada bihurritz gandu egarria asetzeko beharrezkoa zuen edozer egitea: sastraka artera jauzi, baratza arteko harresiak gurutzatu, hodei artera garaietatik amildu, banbu-enborretara igo... Ezerk ez zuen beldurtzen, ezerk ez zuen bere helburutik aldentzen, bera, lainoa eta aterkia. Hori zen guztia.

Hodei baten barruan zegoenean ez zuen ezer egin beharrik izaten, aterkiari ondo heldu besterik ez. Eta horrela, emeki-emeki, hegaldi teknika hobetzen hasi zen, bere desio gogokoenetara bideratzen. Tseringek gero eta sarriago egiten zituen aterki-irteeretan ikasi zuen nolabaiteko harremana izaten zuela jarduneko bidaiak aurreko eguneko gertakariren batekin.

Sutondoan Kathmandun bizi zen arrebak telefonoz deitzen ziola amari? Bada hurrengo goizean Kathmanduko Budanath auzoko sherpen kalera egiten zuen kukua, bertara ezkonduko bere

arreba Dorma eta haren seme-alaba Sanyda eta Dorjirekin tartetxo bat egin eta haien gosari-ordua leihotik atseginez usainduz, adituz, arnastuz.

Osagile-igarle zuen aitona ikusten zuela belazeetan gora belar-sustrai bilketan? Ez zituen bi hodeiratze itxaron beharko herria eskegita zetzan haranaren arroilik itxienean aitona zuen zeremonietarako etxolara agertzeko berau jendez lepo eta guztiz ketutako giro itxi-izerditsuan zegoen bitartean.

Anaia Passangek trekkingean turista zuriekin irabazitako dirua etxera heltzen zela (egun handiak izaten ziren haiek, festa handiak, bai horixe) haren lagun Dupuk zuzenean ekarria? Hurrengo bidaia zalantzarik gabe bere anaiaren altzora egingo zuen, izan mendiko aterpe bateko gelara, izan kanpin denda estu bateko sarrerako atera, Passangen zurrunka jostariak ia hatzen puntaz ukitzera.

Eskolan gazte zuri hura azaldu zenetik, bazituen ere inoiz ikusi eta entzun gabeko lekuetara joan-etorri aterkituak. Ibili zen Europako hiri handietan, Japoneko hiriburuan, miretsi zituen tramankulu zaratatsu metalezkoak, Katchenjungako arranorik arinena baino bizkorrago mugitzen ziren hegazti erraldoi ke-sortzaileak, harana hesitzen zuten kaskoak baino gorago igotzen ziren adreiluzko eta beirazko etxeak... aterkiak paseoan eramaten zuenetik, erabat ulertezinak zitzaizkion gailu eta eraikinen zerrenda amaigabea osatu zezakeen begien aurrean paratutakoekin.

Hasieran ez zekien nondik nora aitona buztinezko txabolara joan beharrean milioika lagunek populaturiko eremu grisetara egiten zuen hegan. Bat-batean irakasle zuriak ikasgelan eskuz esku igarotzen zituen aldizkari koloretsuak oroitu zituen arte. Jakina! Aterkiak klasean paperezko argazkietan lehenago ikusitako paraje guzti haietara eraman zuen! Orduan ulertu zuen. Berak emana zion agindua! Berak gida zezakeen gosaldia eta zenbakiak ikasteko kantsuak hasi arteko gandu-ibilaldien norakoa!

Burutazio bidez zirimola lainotsu haren bidea baldintzatu zezakeela ondorioztatu zuenean, galbahe lana egiten hasi zen bere baitan. Gehiegi estutu gabe baina sena hutsez bere hausnarketatxoak horren inguruan eginez. “Nora nahiko nuke joan? Nor nahiko nuke ikusi? Norekin eman nahiko nuke nire goiza?” eta beste horrenbeste itaun, haur batentzat arrotzak

bezain ezinbestekoak, gertaerek bultzatuta espero gabe bere aurrean tupustean paratu zitzaizkionak.

Hautatzeko bidea ikasita, zera erabaki zuen bere lehen borondatezko bidaian: garoz, hostoz eta banbu adaxkez egindako etxolan 24 ordu emango zituela bere osaba Khandurekin. Bere aldamenara abiatuko zen osabarentzat hain berebizikoa zen osakuntza-babes erritu hartan txabolan isolaturik egon bitartean. Tsering umeegia zen Khandu han sartuta zertan zebilen jakiteko, bazekien, haatik, zer edo zer garrantzitsua zela, Kathmandura itzuli baino lehen han sartu zela aitona osagile-aztiak gomendaturik, eta sherpa baten bitzita osoan zehar gutxitan egoten zela inor etxola hartan sarturik hain luze.

Khanduren gorputz biluz osoa, ukendu koipetsu usaintsuez bustia, eta hiru harri kokorrek hesitutako sugarra, horixe zen dena. Osagileak ordubete iraungo zuten kantu perkusiodun errepikakorrak haizatu zizkion txabolara sartu eta lasterrera, ondotik handik atera eta han geratu zen Khandu, zain, eguzkia berriz oheratu arte trantze moduko batean, egonean.

Tseringek bazekien hura oso une inportantea zela Khandurentzat. Agian bazuen jokoan lana, osasuna, zorientasuna, familia. Ez zekien zer. Baina pisuzko zer edo zer bai. Hortaz, han sartu zitzaion Tsering ganduarekin bat, bisitari ezezagun, lagun ikusezin. Eta ezin jakin zergatik. Norbera bitarte edo kasualitatea bitarte. Nolanahi, han eman zuen tarte luze-luzean (berari hala iruditu zitzaion, lipar bat baino ez izan arren) igarri zuen nola Khanduren aurpegiera estuasunetik lasaitasunerantz irristan hasten zen, leun-leun, ezpain artera ia irribarrearen printzak agertu arte.

Etxola ketu hartatik atera zelarik, eskola aurreko futbol zelai putzuz betearen parez pare utzi zuen hodeiak. Egun hartan ez zegoenez gazte zuriaren ingeles klaserik, beranduago zihoan eskolara eta hodei eskasian, eraikinetik hurbilago atxiki behar izan zuen hegaldia ahalbideratuko zion lainorik. Itzulera ere, beraz, hurbilago egin zuen, eta bere estuasunerako, ia-ia zelaian bertan agertu zen aterkipean. Bart egundoko enbata bota zuen inguruotan eta horrelako guztietan bezala, futbol zelaia ia igerileku bihurtua zen. Bada, lainoaz gain, bere agerpen tupusteko eta oldartsuaren (lur hartzerakoan beti hartzen zuen danbateko gogorra, belarretan nahiz lokatzetan gelditu) babesle igerileku-zelai hura izan zuen. Eskolan ordurako zeuden hamarnaka ikasleak lehorte auzolanean buru-belarri ari ziren, eta euren jolasleku

zuten herrixkako ordeka bakarra urez husteari osorik emanak egonik, Tsering hegalariaen zorionerako ez zuten haien egiteko auto-antolatutik arreta desbideratuko zien ezertxori inola ere erreparatzeko asmorik agertu.

Lehen aldia zen norbaiti bere sekretutxoaren gaineko galderarik paratzeko motiborik ematen zuenik (danbatekoaz gain, jaisterakoan aterkia pikondo baten adarretan eskegita geratu zitzaion eta bertatik jauzi egin behar izan zuen), baina esan bezala zorionez, lainoaz gain, aurreko eguneko euri-jasek eta halakoetan biharamunean antolatzen zen ikasleen auzolanak salbatu egin zuten zurrumurruetatik.

Nolanahi mesfidantza barruan zuen jada: zer esango ote zuen inork gandu itxia izanagatik bat-batean aterkiari helduta lurrartzen ikusi ezker?

Bere bidai-erabakiak hartzeko gaitasun ia estreinatu berritan, Tseringek hurrengo goizekoa azken hegaldia izango zuela ezin jakin Pathiri bisita luze bat egiteko gogoia murtxikatzen zuen bitartean.

Arratsalde hartan klasetik atera ondoren beti bezala jolastera joan ziren artasoroetara, zuztar batzuk dastatu, oihu egin, iturrietan busti, Pathiren lastozko teilatura igo, gonpara harriak botatzera igo, gazte zuriari eta ahal zen guztiari adarra jo, tximilikuarteka ibili... hura zen beraien errutina alai. Tsering, Pathi, Tikpa, Subas... sherpa txiki saldoa batetik bestera bihurrikeriatan, edozein kondairaren protagonista izateko merezidun.

Eguzkiak urrutian zetzan Kantchenjungako mendilerroa gorritzen zuen unean bazekiten haurrek etxeko sutondoak prest zeudela eta tximistaren pare, bakoitzak bere etxerako bidezidorra hartzen zuen. Eta arrastiri hartan, Tseringek Pathi maldan beheara arto-hosto, huntz eta banbuek estali ahala desagertzen ikusi zuenean aterki-hegalariarentzako hurrengo hautua egin zuen: "bihar goizean banoa berarengana".

Halaxe izan zen hautua eta halaxe aterkiaren ibilaldia. Baratz eta larreen hezetasunak mardul atxikitzen zituen gaueko lainoak eguzkiak haiek zulatu bitartean. Etxetik hurbilen zegoenera zuzen abiatu, aterkia ireki eta blaust, haize ufada batean Pathiren ohatze parera egokitu zen

Tsering bidaiaria. Pathi ez zen goizeko 7tako ingeles klasetara joaten, lo amiñi bat gehiago egiteko gogoak iltzatuta geratzen zen, betiere mantapean. Gainera, arratsaldero nahikoa egiten zion barre bere etxearen parez pare, aldapatxoaren gainaldean zegoen etxean, aterpetua zeukaten zuri bizargorriari eta ez zeukan loguraren mesedetan hari entzutera joateko inolako interesik.

Han zen Pathi bai, lo oraindik, etxeko sutondoan bildurik zegoen senitartekoen zalapartari entzungor, zurrunkatxo kantari goxoez banbu oihaneko txorien lagun. Bere ondoan, budisten erara eseriz, Tsering Pathiren arnasari ahalik eta luzeen jarraitzeko prest zen, erritmo pausatuan bere lagun-minaren loa borondatez lagundu nahirik. Pathik lasai zirudien, eder, armoniatsu, printzesatxo sherpa zen, Kathmanduko aristokrata bat baino duinago, Sukhetarreko negu-festa baino alaiago, oihaneko errekaak baino freskoago.

Hainbestearino liluratu zuen Pathik une hartan, ezen eskua luzatu eta Pathiren bisaia laztanduz instintiboki bizitzako lehen maitasun keinuari bide eman zion.

Hori gertatu bezain laster inondik ere espero ez zuen gertaera jazo zen ordea. Tenzing aitona osagile-igarlea bere aurrera agertu eta horrela zuzendu zitzaion ilobari: “Tsering maitea. Belaunaldiz belaunaldi gure etxekook gorde dugun sekretuaren zaintzaile berria zara. Zuk bilatu beharko duzu hemendik aurrera nola egin hodei-hegaldiei ekiteko. Baina inoiz, inoiz, inoiz ez ezazu inor ukitu. Ez itzazu esnatu, izutu, asaldatu, laztandu, oztopatu, zirikatu. Besterik ez dizut esango”.

Beraz aitonak bazekien zertan aritzen zen laino artean aterkiarekin! Inuzentea bera, nola ez zuen jakingo ba! Ez al zioten askotan esan bere aitona sherpen artean itzal handiko osagilea zela, jende asko etortzen zitzaiola aholku eske, sendatzeko erremedio bila, igarkizun gose?

Aitonaren agerraldiak Pathirengandik arreta desbideratu zion Tseringi. Eta nolabaiteko aldaketa sumatu zuen bat-batean bere egokeran: astunagoa sumatzen zuen bere burua, lurrari helduago bezala, ordura arte aterki-hegaldietan inoiz sentitu ez zen bezala, beste guztien pare nolabait esateko. Alhora so egin eta... aterkia desagertua zen!! Aitonak ebatsi egin zion!! Horrekin ohartzeaz batera Pathik betazalak ireki eta irribarre egiten ziola iruditu zitzaion. “Kaixo Tsering, zer moduz egin duzu lo?” galdetu zion jarraian. Tseringek lotsa sumendi bat nabaritu zuen zainetan gora, gorria, beroa, suzkoa. Zutitu, eta ezer esan gabe etxeko sukaldea gurutzatuz etxetik atera zen kaiera eta arkatza besapean. Eskola hastekotan zen.

ARROILARI BEGIRA

Bailara osoko ikusmira zuen landan zeuden eserita arroilaren sakonera begira. Haserre, ibai gorriak zintzur berde bizian zaratatsu agurtzen zuen bere eremutatik egozten zuen ingurua. Ez zeukan horma garai, baso epelez babestutako gailurrak agurtzeko batere gogorik. Nora joan handik at? Nagiak kendu ahala banatzen zuen ur-emaria, oldarrak ezker-eskuin, goi-ta-behe, mendien besarkadak bukatzeak zekarkion nahigabeaz ezin libraturik.

“Aizu Lama, zuri monasterioan erakutsi al zizuten errekek arimarik duten?” – herrian arbasoen medikuntzan aritzen zirenen artean errespetatuenetakoa zen Tenzingek betile bat bera ere mugitu gabe.

Alboan eserita zuen herrikideari entzungor, Lamak “aizu Tenzing, zuk badakizu Lhasa eta Kathmanduko lama eskoletan zuoi nola deitzen dizueten?” - arrapostua eman zion begiradaz artaldeari so ari zela.

“Ez, ezin jakin. Esadazu zuk”.

“Lama adoregabeak. Gu bezalakoak izateko guztia duzue, ezaugarri bakarra faltan: etxea uzteko adorea”. - ardiak soraiorantz zihoazela Lamak, lepoa haien norabidearekin batera mugituz.

“Aizu Lama, eta badakizu nola deitzen dizueten zuei, monasterioetan hazitakoak zaretenoi, tibetarrek, sherpek, sikkimdarrek edo ladakhiarrek?” - Tenzingek kontraerasoan.

“Bai, badakit. Gogorarazten dizut baina, nik utzi egin niola lama diziplinari eta orain nekazaria naizela, zu bezalaxe” - herrian Lama izena gordetzen zuen arren, jada ez zen gehiago tunikaz ibiltzen ezta hierarkiapeko jardun erlijioso arautuetan aritzen.

“Tunikarekin edo tunikarik gabe, laranja azalarekin edo azalik gabe zukua ematen duen bezalaxe, lama izaten jarraitzen duzu eta lama gisa jarduten duzu herritarrekin. Zuek, monasterioetan urteak eman dituzuenok lamaismoaren zama zuengan duzue eta ezin diozue ihes egin. Eta bai, txitxarrak. Horixe. Denok txitxarrak deitzen dizuegu. Badaezpada errepikatzen dizut. Isildu gabe errezatzen, egun guztia zuen tokitik mugitu gabe, ingurune

guztia harrabots monotonoaz anestesiatzen eta gainera beti agintzen. Ahaztu ez dezazun errepikatzen dizut” - zirikatzaile Tenzing.

“Badakizu Tenzing laguna, txitxarrik gabe ez dagoela zelairik eta lamarik gabe ez dagoela Himalaiarik” – lama erretiratuak lehor.

“Ah bai? Argizariak lurrindutako monasterioetako geletan hainbeste ikasi eta gero jakingo duzu ba lamena kapela beltz, hori, gorri edo laranja agertu baino lehen baginela mediku eta azti, saien bazka eta uzta sasoiako dantzari ezta?” - mendietako jakinduria zaharren aldarrikatzaile, ponbu edo mediku-azti zen Tenzingek.

“Nik tunika laranja utzi dut herri honetan ez dagoelako zer egiterik zuekin. Hor goiko gonpa huts hondatu ziztrin hori ikusi besterik ez dago herrikideon txoko maitatuena ez dela jakiteko. Hobe alferrik ez jardun. Baina gogoratu gauza bat Tenzing: lamek eraikitako mundua erortzen den momentuan, aztiak babesik gabe geratuko zarete eta botika-medikuek erauntsien osteko maldan beherako errekek enbor bakanduak bezala erauziko zaituztete. Gu gara zuen azken heldulekua, eta herri honetan bertan, Sukhetarren, ni desagertzen naizen momentuan zuetako bat bera ere ez zarete errespetatuak izango. Mespretxatuak izango zarete, ukatuak, zokoratuak, ahaztuak. Hobe herri hau lama gazteren batekin saritzen badu Budak, bestela ikusiko duzu billeteen koloreen sinesmen berriak nola suntsituko duen ezagutzen dugun guztia” - lamari nabari zitzaion begietako gorrian hunkitu egin zela etorkizunaren beltzak kolpatua.

“Tira-tira Lama, ez zaitzela horrela jarri. Errepiderik hurbilena 10 ordotara dugu, ez dugu argindarrik, bi ordu oinez ditugu bailara osoko botika-mediku berri bakarrarengana heltzeko, eta zu gure heriotza ziurtagiria sinatzen? Audientzia faltak erretxindu zaitu ala? Egunero-egunero zure etxaldearen aurretik pasatzen dira niregana datozen hainbat eta hainbat herrikide. Non dago zuek desagertuta gure ezagutzari aurre egingo dion hori? Non dago zuk hain erraz marrazten duzun uholde txikitzaile horren burrunba? Ahhh... ulertzen hasia naiz. Jelosiak jota zaude!! Demontre, galtzaile txarra zara gero. Uste nuen kiroltasun handiagorik hartuko zenuela bezero falta. Onartu ezazu, jendea aspertzen duzue zuen kilker-mantrarekin eta horregatik hustu zaizu hor muinoaren gaineko gompa. Hortik, gure asaben jakituria mundu

berriaren erratza pasatuta desagerraraziko digutela esatera tartetxo bat dago Lama” - Tenzingek ezaxola imintzioak eginez.

“Tenzing Purba Sherpa. Begirunea zor dizut, oihana inor gutxik bezala ezagutzen duzu, jende asko sendarazi duzu, beste aldera sartu eta irteten zara lamak dugun besteko erraztasunez, gizon ona zara. Baina lama izateko herria utzi eta Himalaia iparralderantz gurutzatzeko adorea falta izan zitzaizun bezala, orain ikusten duzun etorkizunari hitzak jartzeko adorea falta zaizu. Badakizu zer datorren mendi magaletako monasterio eta gompen hormak eraistearekin lamen mundua urtzen bada.” - Lamak ahoan zerabilen pepino zatia murtxikatzen zuen bitartean.

“Har ezazu trago bat ur motel. Horrenbesteko tristeziak ahoratu duzun pepino zatitzar horrekin gaitz egingo dizu eta” - eguerdiko mokadutxoarekin ari ziren zelaiak bukatzen zireneko tontortxo batean eserita zeudela.

Zelaiak bukatu eta gailurretarrantz alturako oihana hasten zen lekuan zetzan muino borobila, herriko festetarako erromeria-gune ere bazena. Bista apartak bailara osoaren gainean, herriaren gaineko balkoia, mendi-ertzeetarako abiapuntua, belardien oihal berde leuna basoko berde ilunarekin batzen zen maldaren tolesdura. Txokoaren atseginak herriko jende mota asko bilarazten zituen bertan: zirela herriaren gaineko belardietan bazkaleku zuten ehunaka ardi zaintza egiten zuten artzainak, zirela artilez arropa-ehuntze lanetan aritzen ziren zahartzaro atariko emakumeak, zirela hizketara hurbiltzen zirenak, zirela bailararen adar batetik besterako bidean suertatzen ziren auzokideak.

Lama eta Tenzing mediku-aztia, goiz hartan bezala, noizean behin igo ohi ziren bertara. Herriko plazarik ezean, haur eta gazteek okupaturik izan ohi zuten eskolaren aurreko futbol zelaia. Beraz, egun eguzkitsuetan jendea etzanda egotera gonbidatzen zuen gain abegikor hark betetzen zuen plaza-lana. Izango zen jaiegunen oihartzuna, izango zen tokiaren energia berezia, izango zen han bukaeran ageri ziren tontor izoztuen itzala. Hura zen herriko agora. Hartara, Lamak eta Tenzingek ezin espazio kuttun hark eskainitako aukerari muzin egin. Astunegia zen zain zuten gaien zerrenda belarretan elkarren ondoan egonda mokoka ez jarduteko.

“Ura baino nahiago bufalo-esne mingotsa. Gezurra dirudi mediku-azti batek hain gustu gutxi izatea” - zorrotik kuia lehortua atera, tapoia kendu eta tragoxka bat hartzen zuelarik Lamak.

“Hor gordea duzun hori bufalo-esnea da ala? Lehenago esatea zeneukan! Kontxo, kontxo, nola ez dugu dastatuko ba tamainako gutizia! Pasa iezadazu kuia hori segituan Lama. Jan berri dudun pipermin beltz minetan min zoragarri horrek eskatzen dit tragoxka bat!” - begiak ia saltaka zituela Tenzingek.

“Beraz, zuk ere behar duzu trago txarren bat pasatu? Uste nuen eztarria piperminetarako prest zeneukala. Biguntzen hasia zara agure zahar hori... ez ote da izango oihanean antolatzen dituzun ukendu-festa horietakoren batean sustotxoren bat izan duzula, ezta?” - Lamak orain kontraerasoan.

“Nola?” - harridura aurpegiaraz mediku-aztiak - “berak kontatu al dizu ala?”

“Ez motel, zer edo zer entzun dut basoko garoen artean. Norbera artasoro eta garo-sasien artean dabilela belarria fin jarri baino ez dago zure sendaketetan gertatzen denaren berri jakiteko, adiskide. Oraindik ez duzu basoa ezagutzen, ala? Eta gainera, ez al dakizu niri ere gaueko bizidunek bisita egiten didatela?” - solaskidearen harridura eta ernegazio arteko aurpegiaraz ageri zenez espero ez zuen heldulekutik ekin zion honakoan.

“Beno, hainbesterako ez da izan. Kathmandura bueltan zihoala istripua izan du busak, baina onik irten da Lamuren semea. Zure gompara errezatzen joan balitz seguruena hilik legoke” - harrokeriaz aztiak.

“Bai, ziur nago horrela izango zela. Gehienbat gompako sabaia gainera eroriko zitzaiolako haize ufadarik suabeenarekin. Edonola, kezkatuta egon beharko zenuke. Medikuntza modernoa gertutik bizi izan duen eta hiriburutik etxera bueltan datorren herriko seme batek zugar ezartzen du bere konfiantza, 24 ordu ematen ditu zure esanetara etxola batean hertsirik, ke lurrinetan ia-itota, gau oso bat jarraian oihanean banbu eta hostozabalekin biluzik, ezti-belar-sustraien ukendua gorputzean emanda, edabe bereziak prestatzen dizkiozu zorte onak irau diezaion, eta hirira bueltan doanean, dzast, autobusak maldan behera lokatsetan plaust eta ia-ia han geratzen da gaztea”.

Isiluneak hartu zuen bien arteko belar motz-motzeko zelai zatia. Nabarmena zen Tenzingen atsekabea. Autobusean zauritutakoa bere iloba zen, Khandu, eta larriki zauritua suertatu ez zen arren, kolpe ederra hartu zuen: hiru saihets eta sorbalda hautsi zituen istripuan. Horrek ez zuen herrian Tenzingen izen ona edo mediku-azti izaera kolokan jarriko, inondik ere ez; haatik, bere familia-atsekabea handitu baino ez zuen egiten zori ona irabazteko bere sendaketa-prozesutik igarotako herritar baten patuak hain kolpe latza jasan izana herritik aldendu eta ordu gutxira.

Adiskidearen aurpegiera goibelaz ohartuta, apur bat animatzen saiatu zen Lama: “eh Tenzing, etzazula kontua ilunetik heldu. Gompako metal-xaflaren batek bertan harrika ibiltzen diren umetakoren bat harrapatzen badu, zer, Budari botako diogu errua? Ekaitzen eta suntsiketaren Budari? Zure eskuetatik pasa bazen Khandu, ziur horrek babestu zuela busa amildegian behera erortzean. Ez daukat zalantzarik horretan. Orain, hobe hurrengoan berduratxoren bat botatzen badiozu edabeari, jendearen marmarrak azken garaietakoak gozoegi ateratzen ari zaizkizula baitio” – zital eta dibertigarri Lama.

“Aizu Lama, ez niri monjekeriekin etorri. Ez dut zure aholkutxoekin beharrik. Horrela hitz egiten zenion jendeari gompan bizi zinenean eta denak ihesean jarri zenituen” - Tenzingek ziztadari eztenaz ihardetsiz.

“Bale, bale, lasai, zure tristura autoestimua baxuarekin nahasi dut. Zuregan ez datoz biak batera, nabari zaizu. Gauza bat esango dizut halere horren harira. Ni ere aspertzen nintzen gompabizitzan. Nahiago dut zelai eta soroetako lana, otoitza eta meditazioa baino. Nahiago dut emaztea eta seme-alabak izan, herritarrek elikatutako otoizlari izatea baino. Eta badakizu monjeok nahi beste sexu izaten dugula etxez etxe bidaiatzen dugunetan, senarren onespenearekin izan ere. Baina nahiago dut oraingo bizitza eta ez naiz damu. Beraz utzizu nire aldaketa porrot legez aurkezteari. Nahita egin nuen, eta berriz ere egingo nuke” - bere bizi-ibilbidearen defentsan tinko Lamak. “Zuk ere aldatu zenuen zure aukera Sikkimeko gandorra beltzen monasteriotik ihes egin zenuenean” - berriz ere Tenzing zokoratzeko gogoz.

“Hara bestea nondik datorren. Oker zaude. Hura ez zen nire aukera izan, hura gure herriko orduko lamak gurasoei egindako presioen ondorioa baino ez zen izan. Horrela errekrutatzen gintuzten mendiko herrixketan. Zu Lhasako gandorra gorrien monasteriora nola joan zinen

ahaztu al zaizu? Ez al duzu oroitzen nola utzi zenuen etxea 12 urterekin? Orain, Himalaiari eskerrak, gazte-gaztetatik mendira doaz denak zuriekin lanera eta lamak ez daukazue gurasoak nondik estutu” - garrantz hizketan 80 urtetik gora zituen mediku-aztiak.

“Ez nazazula antzinako presioekin nahastu. Nik ez nuke joko zikinik inoiz erabiliko. Argi dut gainera lamaismoaren bideak ez duela behar inolako presiorik. Berez doaz bere habiara hegan ikasten ari diren txoritxoak. Eta zu bertatik pasa ez bazina, ez zinateke gaur zaren mediku-azti jakintsu eta errespetatua izango.” - sendo bere jarreran Lama.

“Lama, benetan uste duzu mendietako umeek gustura uzten dituztela lainoen arteko lasterketak, arto-zuztar goxoki meriendak, etxaldetik etxalderako ibilaldiak, monasterio isolatuetako gela ilunetako ikasketa gogorren truke? Ordu luzeetako errezo-saioen truke? Yoga ordu amaigabeen truke? Eta benetan uste duzu, gurasoek hori jakinda, gustura uzten dietela joaten?” - bizipenetik hitz egiten zuenaren ahots lodiaz.

“Eta zuk uste duzu umemoko guzti horiek hobe daudela mendi-zamaketari lanetan? Zurien kapritxoan menpe hobe daudela? Gure tontor sakratuetan izotz artean hilda, elur-jauzietan itota, goialdetako arimen eremuetan arnasa hartu ezinik? Uste duzu dolarren erlijioa Budarena baino hobe dela hor beheko futbol-zelai lokaztu horretan jolasean ari diren haur guzti horientzat? Kathmandura mendiko lanetara zein Qatarra edo Malasiara asto-lanetara doazen gazteak abiatu baino lehen, zure ukenduen bila datozenean, alai ikusten al dituzu? Euren buruekin bakean?” - jainkoen ordezkatzeko baten aurrean zeudela adierazi nahi zion Lamak mediku-aztiari.

“Khandu ez da gailurretara joaten, trekkingetan baino ez dabil, arriskurik gabeko ibilbideetan” - Tenzingek uzkur.

“Eta badakigu zergatik ezta? Mendi erraz hartan istripua izan zuenetik tontor gehiagotara ez joatea erabaki zuelako. Jainko berde berriak ez diolako burua galarazi. Aldiz, Khandu bakana da herrikoen artean. Beste guztiak zer? Non daude? Zertan dabilta?” - Khandu, autobus istripua izan berri zuena, zortzimilakoetan hasia zen mendebaldeko zurien esanetara, baina behin 6.000 metrotako tontor batetik jaisten ari zela ia bizia galdu zuenetik uko egiten zion

gailurretarako espedizioetan parte hartzeari. Erabaki zaila, jakinda zuriekin gailurretara jotzen bazuen, askoz diru gehiago irabazten zuela mendiko lanean ari zen sherpak.

“Ez dizut ukatuko gailurretako diruak, gure herrietan gauza batzuk erraztu arren, min handia egin duenik. Itsuenak ere ikusten ditu gure herriak gizon gaztez gabetuak, dela atzerrian zein mendian lanean daudelako, dela behin dirua poltsikoan Kathmandu nahiago dutelako. Gizonen beso falta dago soroetan. Emakume, zahar eta ume herri bihurtzen ari gara ia. Noizean behin zorroa dolarrez beteta herriratzen direnen harrokeria eta handiustea ez da makala. Ondotxo ikusten ditugu biok horrek sortzen dituen ezinikusiak eta desberdintasunak. Lehen neguko dantza zirkularrean ez zegoen auzokideari eskua ukatuko zion sherparik. Gaur da eguna hori bukatua dena. Argiro, mendiak kate berriak ekarri dizkigu.” - nolabaiteko babeska emanez adiskidearen argudioari.

“Hortik zulako mediku-aztiak banbu-kainabera baten pare erabili eta zokoratzera urrats bat baino ez dago. Akabo zuen itzala herritarren artean” - Lamak sarkor.

“Hor labain egiten duzu Lama. Jakitun naiz mendiko diruak herrietan sortzen dituen estropezuez. Ahaztu egiten duzu ordea beste kate batzuek ere hautsi dituela mendira joateko aukerak. Tartean zuen agintekeriarekin bukatu du, jada ez zarete jaun eta jabe. Berdin-berdin soroetako maizterrei galdetu ahalko genieke ea zer nahiago duten seme-alabentzat: artoa eta arrosa erein eta jasotzen bizitza osoan jardun eta uztaren herena lurraren jabe sherpa-jautxoari eman edo semea mendira zamaketari lanetara bidali, eta zorte pixkatxo bat izanda familiarentzat lurra erosteko beste diru irabazi. Eta zorte pixkatxo bat gehiagorekin, anai-arrebei edo seme-alabei Kathmandun ikasketak izateko beste diru atera zuriei. Benetan uste duzu kate berriak kate zaharrak baino estuagoak direla?” - galderak airean iltzatuz bezala.

Kotoia zen belarrezko talaia hartatik parez pare agertzen ziren hodei mardulak, herrixken, bailaren, soroen txapel ziren zuri ia ukigarriko hodei sendoak, mendi ertzek marrazten zuten urdin biziaren azpitik sigi-sagan mugitzen zirenak. Galderak ikusmira hartan iltzatzeak ez zuen aparteko ezer, dena zen material, dena gorpuztu, dena haragiztatu.

“Katerik gabeko izaki bakarra elurretako Yetia da Tenzing, ez dugu horren gainean aritu beharrik. Bera da izotzetatik bailara umel bero sakonenetara jaisteko askatasuna duen bakarra,

inork ezin du oztopatu, ez du mugarik lainoen babesak ez beste. Nik ere nahiago ditut auzoko mutil gazteak aldatzetako lanetan eta ez Arabiako basamortu itogarrietan aberats tiranoen menpe. Baina horrek ez du esan nahi eurentako asko heriotzara ez doazenik zuriek ondo ordaindutako kapritxoengatik. Han daukagun Katchenjungari begira haziak gara ehunaka urtez Sukhetarreko sherpak, eta ihesean ibili garenean salbu, halabeharrez ez bada izan, gutako inor ez da hil haren izotz-itsasoetan edo elur-jauzietan. Zergatik? Errespetua gorde diogulako. Zuk zeuk dakizu hori inork baino hobeto. Beste aldera zoazenean arbasoek zer esaten dizuten entzuten duzu, izotzetako eremuetan ez sartzen ikasi dugu haiekiko begirunez. Eta orain? Orain, hemengo etxean hildako bat, bestean zauritua, hangoan desagertua. Lehen baino diru gehiago bai. Onenean, gure gazte indartsuenen atzamar izoztuekin kontaktzen den dirua.” - Lamaren begirada oso zen nahigabetua. Ezin jakin nora arte herrikide gazteen patuak edo bere gonpa hutsaren ajeak sortua zen goibeltasuna.

“Ez nauzu hortik estutuko. Zuk bezainbeste sufritzen dut mendiko istripuekin, gazteak abere gisa erabiltzen dituzten zuri tontorzale askoren harrokeria diruzalearekin, herriak mutil gaztez hustuta ikustearekin. Baina ikusten ditut neskak Kathmandun edozein lan tristetan beharrean, gure gazte sherpak zein magaletako kumeak ez diren nepaldar brahma, newary, tharu edo gainontzekoak Malasian mirabe bihurtuta, eta uste dut mendiei begira eman zaigun bizia berdin mendiak kendu diezagukeela. Bitartean, bizimodua egiteko aukera badute gure gazteetako batzuek, hainbat hobe. Nahiago etxera begira elurretan hil, egarriak itota jauntxo turbantedun esklabozale baten eskuetan baino.” - tonu berean Tenzingek.

“Hori da beste aldean arbasoek esan ohi dizutena?” - Lamak ezin sinetsirik mediku-aztiak mundu berriaren gaitzekiko erakusten zuen konplazentzia.

“Arbasoek esan ohi didate mendia dela gure altxorrik handiena, han daudela eurek gure zain.” - labur, gehiago sakondu nahi ez balu bezala.

“Besterik ez?” - berriz erasoan Lama.

“Bai. Behin hilak garenean saiek txiki-txiki eginda eramango gaituztela tontorretara eta troka zuloetara. Hortaz, gure gazteek euren kabuz igo nahi badute bertara, ez dagoela zertan larritu. Azkenean denak goazela leku berera” - antzinako Bon erlijioaren arrastoa atera zuen Tenzingek

solasaldira, bai baitzekien Lamak ez zuela budismoa Himalaiara heldu aurretiko praktika haiekiko onespenez inoiz ere erakutsi.

“Beno, horrela jartzen bazara ez dugu zertan jarraitu. Lama garenok ere sartzen gara beste aldera, eta gomba hustua eta eraitsia dagoen arren, zu bezala pasatzen naiz ni beste aldera. Zu oihanean eta zure txabolan. Ni nire etxaldean edota inguruetako herrietako lamen etxaldeetan. Zu belar, sustrai, ziza eta ukenduekin. Ni mantra, idazki eta meditazioarekin. Biok goaz leku berera ordea, eta biok ditugu elkarrizketak. Niri bezala, zuri ere hitz egiten dizute. Tontorrak gazte izoztuz betetzea ez dute onartzen amildegietan eta izotzetan bizi direnek. Ez daude pozik, eta hainbesteko harrokeriari aurre egin ezinik, ezin dituzte babestu mendiaren atzaparretatik.” - Lamak Tenzingen hitzei sinesgarritasuna ukatuz.

“Beno, ez badidazu sinistu nahi zure kontua da. Tunika gabeko apaiza zara, eta zure autoritateari aurre egiten dion edonork gogaitzen zaitu. Zure beste aldea eta nirea ez dira berdinak, ez bada Yetia orain Buda itxura hartuta ibiltzen oihanetako gau beltzetan. Barkatuko nauzu Lama. Goiza solasean doakigu eta eguerdia baino lehen urruti xamar jaitsi behar dut amaren anaia bat gaixo jarri delako. Ikusten duzunez publikoa oraindik fidela zait, gaixotasunean gehienbat. Zure gomba hutsak sortzen dizun erresumina aztertu beharko zenuke” - Tenzingek bere burua Lamaren gainetik ezarri nahirik.

“Errazegi ematen duzu amaitutzat nire lama lana herrian Tenzing. Ez dizut zertan esan nortzuk datozkidan etxera laguntza, aholku eta sendaketa eske, zuk uste baino gehiago. Gomba hustua hobe dago umeen harrikaden zain. Zuk Sikkimeko monasterioan ikasi zenituen teknikak mediku-azti errespetatua izateko balio izan zaizkizun bezala, nik amaren amari ikasitako belarrak ondotoxo menderatzen ditut. Eta zuk bezain erritmo ona dut sendaketa kantak errepikatzen. Ez ahaztu lamak garela, Himalaiako seme ere bai.” - apur bat sentikor jasan berri zuen eztenkadarekin.

“Hara orain nondik zoazen. Nik Sikkimen ikasle emandako bi urteak sufrikarioa izan ziren niretzat, eta zeozer ikasi banuen gogoz kontra izan zen. Askotan hitz egin dugu horretaz” - xehetasunik eman gabe.

“Badakit, horregatik, zuk ere lamaismoari diozun anker-gogoaz hausnartu beharko zenuke. Gandorra beltzen artean denak ez ziren izango zu ia akitu arte zigortzen zintuen lama hura bezalakoak. Nik ez nuen horrelakorik izan ezta ikusi ere. Ez zara justua lamaismoa zure bizipen gogorretik soilik epaitzen baduzu.” - norbere erresuminen bilaketak leporatze hutsen zerrenda baino ariketa zabalagoa izan beharko lukeela gogoratu nahiz...

“Ez badut bizipenetik epaitzen, nondik hitz egingo dut ba? Zurekin hemen ditudan pepino gazi mokadutxoetatik?” - Tenzingek berean kiribilduz.

“Ba esaterako hasiera bikaina litzateke adiskide. Nahiz eta tunika kutxan gordea daukadan eta gompan bizi beharrean emazte eta seme-alabekin nire etxean bizi naizen, zu jipoitzen zintuen lama bezain lama izandakoa naiz. Eta zuk bezala sendatzen ditut herrikideak, zuk bezala dantza egiten dut neguko gizon eta emakumeen zirkuluetan, zuk beste maite dut arroz-eta-artatxiki-ardo epela, zuk bezala egiten dut itzala ilargiak Sukhetarreko gauak argitzen dituenean” - Lamak bere barnean zuen lamatasuna aldarrikatu nahi zuen Tenzingen aurrean, tenplua utzi, ordena jakin baten mendeko diziplina utzi, eta herrikideen artean bat gehiago bihurtzea erabaki zuen lamatasun ez-disziplinatua zan arren.

“Zu lama arraroa zara Lobsan” - oso gutxitan deitzen zion izenetik Tenzingek bere osagile-kompetentzia zuen herrikideari. Bazuen kompetentzia gehiago, hots, bazeuden mediku-azti gehiago inguruetan, bazegoen osasungintza mendebaldekoa erabiltzen zuen botika-mediku modernoa herritik oinez bi ordura. Haatik, Lobsan Lama zen itzala egiten zion bakarria auzokideen begiruneari zegokionez. Berak ez beste inork egin ziezaiokeen aurre jakiturian zein onspenean, eta horrek berak ematen zion euren harremanari soka tenkatuak daukan indarra. “Zeharo arraroa” - segitu zuen - “ezagutu nituenetatik oso urrun dagoena. Arropa berezirik ez duzu erabiltzen, baratzean aritzen zara gainontzekook bezalaxe, ez dituzu jendeak aspertzen egun osoko otoiekin, eta hala eta guztiz ere gau osoko saioak egiteko, hildakoak agurtzeko, eskualdeko lamarik indartsuena zara. Herrikideek errespetatzen zaituzte. Baina zuena bukatu da. Ez dago gehiago gazterik zuen lamatasun herrikoia berrituko duenik, eta aldiz, ttuntun gauak ospatzen ditugunero ikusten duzunez, pombuek badugu katean jarraipenik, baditugu ikasleak, nire seme Tsetan horietan indartsuena. Guk bide luzea dugu, zuenak egin du”.

“Tenzing, Tenzing. Ahaztu zaizu zuek ere pagauso bihurtuak zaretela. Denbora kontua baino ez da. Dolarrak sartu zaizkigu erraietaraino, eta gu galtzearekin batera, ez dute gazteek zuengan gehiago sinetsiko. Lotuta goaz zuek eta gu Tenzing. Turisten txaloak jasotzera gu baino lehenago helduko zarete. Bai. Baina behin erortzen hasita, batera eroriko da gure mundua. Zurea eta nirea.” – Lama Lobsanek ahotsaren oihartzunari luzamendua emanaz, ia-ia bere hitzek basoetatik gora zetorren haize emari goxoarekin bat eginez.

“Hara, zuria dator aldapan gora Tendi al baitaria eta lehengusu Antharkerekin”. – bat-batean elkarrizketa errotik moztuz Tenzingek. “Eta hau zertara etorri ote da munduaren beste muturretik guregana?” – galdera luzatu zuen eguzkipeko muino belartsu hartara heldu berri zirenei begi-zeharka irriñoa erakutsiz.

“Auskalo Tenzing, auskalo. Berak ere jakingo ote du zer egiten duen hemen. Behin Tendi eta Antharkek ekarri dutela, egin diezaiogun leku bat gure larre eder honetan.” – eta hori esatearekin batera, heldu berriak agurtu, belazean esertzeko eskatu eta bufalo-esne kuia preziatua eskaini zien.



LAMU, ZERRIZAKUR ETA OTSOZERRI

1.

Lamu, Yaltsen, Antharke eta gazte zuria sukaldean ziren. Ilundu berria zen gaua eta Lamuk aizto luze batez txikitutako oilo hilberriaren zatitxoak lapikoan etzan zituen. Piperminaz busti ondoren emeki-emeki eragin eta salda goxoaren lurrin usaintsuak buztinezko etxea lainotu zuen. Zuria zegoen gela, beroa barrua. Suaren urdin-hori-gorriaz margoturik ziren bisaiak: zimur sakonez zaildua Lamuk, artasoroetan irabazitako zauriz dekoratua Yaltsenek, goimendietako hotzek zartatua Antharkek, bizargorriak menderatua europarrak.

Atea ireki eta Pema neskato liraina sartu zen banbuzko etxolaren erdi - erdira zuzen - zuzenean. "Lamu!! Zerrizakur eta Otsozerrik alde egin dute!!! Zatoz kanpora, agudo!! Hesiaren gainetik jauzi egin eta oihanera joan dira!!!".

"Baina, baina, zer diozu ene txiki horrek, zahartua nauzu eta atsoa naiz baina ez nauzu harrapatuko hain erraz. Eseri hementxe nire alboan eta jan ezazu gurekin oilo zopa egin berria." - Lamu amonak hortzik gabeko irribarrea eskainiz.

"Seriotan ari naiz izeko Lamu!! Etxera nindoala eskolako kontu eta gorabeheren gainean solasean aritzeko gogoz nengoen eta zerritxoei bisitatxo bat egitea bururatu zait. Harresiaren parera igo bezain pronto, euren izenak oihukatuta agertzen ez zirela ikusita, barrura sartu naiz. Eta ez daude izeko, ez daude!! Benetan ari naiz!!" - negar zotinka Pemak.

"Eh, eh...hortaz...eh...nolatan egingo dute ba ihes hainbeste maite nauten ene bi kurrinek??? Ez zituzten ostuko ezta???" - zalantzati Lamuk.

Ordura arte isilik egondako Antharkek bere lehen hitzak esan zituen orduan: "Ama, zuk uste Zerrizakur eta Otsozerri lapurtu balituzte ez genuela haien garrasirik entzungo?? Ez dakite isilik egoten eta!!".

"Eta drogatu balituzte?" - Lamuk gero eta urduriago.

“Ama, badakizu hemen gure droga bakarrak mendiko belarrak eta arroz-pattarra direla... denbora galdu baino lehen hasi beharko duzu gertatutakoa onartzen.” - zuhur antzean Antharkek baina gehiegizko sendotasunik gabe. 6 urte zeraman Antharkek amaren etxea zapaldu gabe. Erraz esaten da 6 urte. Eta amak etxolako suaren gainetik begiak doi-doi altxaturik beso zabalik jaso zuen arren, barneko minen korapiloak askatu gabe zituzten ama - semeak.

“Hala bada, seinu berreskuratu eta seme zuri berri bat irabazi dudan gauean, urteetan goizetako argi arrosak, izpi zuriak, laino laranja hitzez bete dizkidaten lau hanketako bi kumeek basarako bidea hartu dute. Bi hanketako ama galdu dute betiko.”

2.

Zerrizakur eta Otsozerri hotz ziren. Oihan bustirako jauzia egin zuten goiz hartan eta pozez egon arren, kezka janda zituen haien pentsamenduak eta elkarrizketak. Askatasuna zuten xede eta askatasunerantz egin zuten. Ez zuten Lamuk atonduriko lasto bustiz eta zirinez ehunduriko ohatzetan gehiago lo egiteko asmorik, ez zuten harrizko lau hesien artean jarraitzeko gogorik, ez zuten ohol-ustel teilatupean euripetik gehiago babesteko desirarik.

Askatasunaren eguna bertan zen, etsaia bertaratua zen. Hizki larriz idatzitako etsaia.

Ordura arte Lamuk maite zituen eta eurek Lamu maite zuten. Goxo hasi zituen, inguruko etxeetako diru-eskaintza oparoetatik babestu zituen, seme lez zaindu zituen. Goizero-goizero bere hitzek eta laztanek argitzen zien eguna Katchenjungaren magalak pizten zituen eguzkiak beste. Esker onez, beraien kurrinik kantariena eskaintzen zioten arto-hostoak murtxikatzearekin batera. Gerora, arroz-garagardoarekin gosalduek ostean, kontu kontari aritzen ziren baratzeko lanetan Lamuri laguntzera zetozen lehen auzokoak heldu arte. Zerrizakurren barrenak begietaraino isurtzen zen gorrotoz egiten zuen borbor bi hankadun gizakien agerpenaz, hainbestearaino Otsozerri hitz lasaigarriz baretu behar izaten zuela ezinikusiak gainezka egin baino lehen: “Zerrizakur, burua erabili ezazu. Lamuk haren maitasuna erakusten digu behin eta berriz. Etzazula epaitu merezi ez duen bezala. Tikpa eta Pema bi sherpakume mukizu baino ez dira. Haien ez dira gure kalterako izango. Badakizu nork den gure zinezko etsaia. Erlabioek haren oin-hotsen berri ekartzen ez diguten bitartean ez dugu zertan kezkatu.”

Begietako zainak zuritu zain isilik gelditzen zitzaion Zerrizakur. Egun hartan, ohituraz kanpo, anaiari arrazoa eman zion: “bai Otsozerri, zuzen zabilta. Horrela bizitzea ere ez da bizimodua. Lamu gehiegi maite dut eta gure artekoa babestea baino ez dut nahi. Ez ditut jasaten amatxori soroan laguntzearen aitzakian gure muturren aurrera datozkigun diruzale guzti hauek. Amorratu egiten naute, baina ez dira gure etsai. Beste hori baino ez da gure etsaia. Hura agertzen ez den bitartean salbu gaude.”

“Horrela da Zerrizakur. Indarrak, burua eta Lamuren babesak gorde behar dugu egun handia heltzen denerako. Auzoko kakatiren bati amorruek eramanda hortzaka egingo bazenio ez genuke gehiago amatxoren konfiantza gordeko” - Otsozerri zen bizkien artean buru hotzena eta anaiaren goraldiei eusten nahikoa lan izaten zuen. Bere hizketaldirik onenak erabili behar izaten zituen egunak joan, egunak etorri. Bereziki artasoroetan goldatze zein uzta garaiak izaten zirenean, orduantxe agertzen baitziren Lamuren lurrak lantzera beso sendoetako sherpa gazte lerdanak.

Egun handia heldu zen ordea. Eta etsaia, hitz larriz idatzitako etsaia, han zuten. Kolpea jasoa zuten. Bihotzaren atzealdean hainbeste urtez gorderik izan zuten amesgaiztoa egia bihurtu zen. Maitasunarekin eraikitako mendekotasuna haustea beste irtenbiderik ez zuten. Ohatzerik ez zuten gehiago izango. Eta orain, oihan ederra hotz zen.

3.

“Zer egin dut gaizki hain luze galdurik izan dudana semea berreskuratu dudana egunean urte guzti hauek goxotu dizkidaten bi kumeak galtzeko? Ez ote du ni bezalako atso bakarti batek familiaren beroa merezi gailurretarako azken bidaia hurbildu aurreko azken egunsentietan bada ere? Non sartu zara urte guzti hauetan seme?”

Antharkek isilik begiratzen zion amari. 6 urtez etxola hartako sua azalean dantzari izan gabe eta ez zeukan hitzik ateratzeko indarrik. Lokatz bustiaren, basa-tabako errearen, banbuaren eta oilo-salda txili-pipermindunaren usain nahasiak mingaina lotua zioten, adorea lokartua. Amari azalpen errazik ezin emateak ez zion laguntzen haren ezinegona lasaitzen.

Hasieran, mendiak utzi bezain laster, etxera bueltatzeko ametsek hartzen zioten loa gauero-gauero. Esnatu, kalera atera eta hiriko hautsek bizitu besterik ez zizkioten egiten ordu ilunetako

grinak. Poliki-poliki baina, ohitu egin zen jende oldeetara. Tuk- tuken plastikozko txirrinen hotsa lehen banbu-adarrek betetzen zuten haragi-espazioa hartzen joan zen. Sirimiria bezala, bere gorputza blaitu arte. Hiriburuaren keak busti zion aurretik oihanaren hezetasun mardulak emeki - emeki igurzten zion bekokia. Eta behin heze, amaren sutondo epelaren beharrik ez zuela sinesten hasi zen. Ez zuela gehiago afaria egin zain hitz-aspertuan orduak eman beharrik izango. Ez zuela etxolako txerri-bikotearen gose ase-ezina arta-ostroz eta arbigaraz ito beharrik izango. Ez zuela herritarren hitz doinu kantari eta bihurria berriz ere joritasunez gehiago faltan botako. Hitz batean, Sherpen mundua ez zuela berriz ere patxadaz zapalduko.

Orain ama aurrez aurre zuen. Galdezka. Jakin-minez. Negu guzti haietako bakardadearen ondoren kontu eske. Eta berak ez zeukan zer esanik. Erantzunik ez. Sherpa emakumeek eraman ohi zuten zapi koloretsuaren gainean ezarritako frontal ahulak zeharka argiztaturiko begi txiki bizien izpi dirdiratsuei ezin eutsirik. Zer ihardetsi amatasunak eta minak aldi berean ernalduriko sentimendu erauntsiaren azalratzearen aurrean? Nola begiratu bakardade ilunaren bat-bateko argiztatze harroari?

Antharkek ez zuen damurik: etxola hartan ehunduriko zilbor-hestea hautsi beharraz egin zuen ihes hirira eta huraxe lortu zuela sentitzen zuen. Alabaina, hausketaren ondoren heste lotu zeneko sehaskara lehenengoz hurbiltzean haren goxotasunak goitik behera astindu zuen. Lo zituen hainbeste galdera inarrosi zitzaizkion eta une batez dardararazi.

Etxolako atearen parez pare zegoen saskia ohe zuten oiloetako baten mugimenduak ernarazirik, etzanda zuen burua altxa, eskuaz amaren frontalaren argitik babestu eta sei hitz luzatu zizkion Lamu zaharrari: “Ama, barkatu, ezin nuen besterik egin.”

4.

Lamuri nahigabea eman ziotela bazekiten, hainbeste urtetan zehar elkar zaindu eta maitatu ondoren ederki asko ezagutzen zutelako. Egunak emango zituen beraiekin pentsatzen, amets egiten, euren minez biziko zen aurrerantzean. Gogorra egingo zitzaion semetzat hartu zituen bi txerrikumeak bat-batean bere etxe aurreko etxetxoetatik ihes egin izana, zalantzarik ez. Auzokoen iseken gainetik hain leun hazi zituen bi pottoko arroxka-beltzaxka haiek horrelako traizioa burutu izanak kolpe latza emango zion.

“Zerrizakur, badakit zertan ari zaren pentsatzen. Ahaztu. Utzi ezazu matraka hori. Hautatu egin du eta kitto. Ez digu galdetu ea esatekorik geneukan, ez du gure iritzia ezertarako eskatu. Bere semetxoak baldin baginen zergatik ez dio beste mokoliki horri ezetz esan, gure etxera ez bueltatzeko, ez dugula bertan nahi. Mina ez da dohainik.” - lehor Otsozerrik anaiari garo erraldoi baten pean euri-erauntsitik aterpeturik zeudela.

“Berriz ere arrazoi duzu Otsozerri. Ez ote dizut arrazoia gehiegitan ematen aske garenetik? Nolanahi, bai, egia da. Uko egin digu eta orain hor du ordaina. Gure hutsunea iltzaturik geratuko zaio betiko. Merezia du. Baina suaren parean eserita irudikatzen dut, malkoetan galduta, intzirika, eta barrenak irakiten hasten zaizkit. Agian borrokatu beharko genuke gure amaren besarkaden alde. Agian arinegi eman dugu dema hau galdutzat. Agian ez gara eskeroneko semeak izan” - malenkoniaz beterik Zerrizakurrek.

“Txotxolo hori. Ahaztu egin al zaizu guk lau hanka ditugula eta beste horrek bi? Ez al duzu gogoratzen Lamuk babestu gaituen arren, herriko sherpa txoro guztiak gu berriz agertu ezker bertan seko akabatzeko irrikitan daudela? Zenbatetan estali behar izan ditugu belarriak auzoko etxolen atarietan gure arrazakide bat hiltzen ari zirela haren odolezko eta izotzezko marruak ez entzuteko? Batzutan pentsatzen dut zer garen eta nor garen zeharo nahasturik dituzula Zerrizakur. Gogoratu behar al dizut auzoko ume mokolo guztiek zenbatetan amestu gaituzten euren matraila-hezurretan jira-biraka?” - haserre antzean Otsotik baino azeritik gehiago zuen anaiak.

“Bale, bale, utzi. Ez zaitetz nirekin tematu. Penak janda nago eta Lamu faltan botatzen dut. Besterik ez. Pasako zait, lasai. Egunak joan eta etorri ahala basa-txerri emereren baten arrastoa usaintzen dudanean maitasunaren aurpegi berri baten esperantzak bizituko nau. Eta zu ere, ezta Otsozerri?” - barre txiki batez mutur luzea okertuz.

Otsozerrik aldiz ez zion amua heldu: “ Orain ahaztu maitasunak badugu zertaz larritu-eta. Hasteko, bila dezagun ira busti hau baino txoko goxoago bat gaua blai ez pasatzeko.” - esanez gaia epaitutzat jo eta buztan kiribilduari pare bat astindu emanez atzealdea erakutsi zion Zerrizakurri latsa aldapatsu baten ondotik zihoan bidexkan behera.

5.

Sutondoaren berotan arroz eta arto-garagardo beroarekin kanpoko ur-jasaren umeletik epeltzen ari zirela, Antharkeri gogoia herrira sartu berriko lehen urratsetara joan zitzaion. Adiskide zuri hori zekarren berarekin, hura zen aitzakia. Himalaiako trekkingetan lanean ari zela ezagutu zuen hilabete batzuk lehenago: atsegina zirudien, ongi moldatzen zen berarekin eta antza herri sherpa batean igaro nahi zuen denboratxo bat zer edo zertan. Bere herriko eskolan ingeles irakasle falta zegoenez, gabezia hura aipatzearekin bat, europar zuri hark baiezkoa eman zion berehala. Hortxe zuen luzaroan esperotakoa, amarengana esku-hutsik ez itzultzeko aukera. Hainbeste urtetako urrutiratzea eta gero, bazuen ezinbestekoa zitzaion argudioa, herriarentzako ingeles irakasle bat zorroan.

Sarrera ez zen erraza izan baina. Herrira sarrera, familiara sarrera, auzokoengana sarrera. Zurrutada eman garagardoari eta bere burua ikusi zuen aste bete lehenago herrira heldu berri, baso itxiek babesturiko magaletan gora, auzokoak eta senitarteak agurtzen ezker-eskuin.

Sherpentzat ezezagunak ziren hitz berriak ahoskatuko zituen sherpa bihurtu zuen bere burua kanpoan igarotako urteetan eta behin berriturik, umetan urratutako bidexketan gora hiriko kume gisa irudikatzen zuen bere burua.

“Antharke! Ongietorria! Etorriko zara bihar arroz-garagardoa edatera gure sukaldera? Ahaztu gabe ekarri ezazu zure alboan dakarzun zuri zurbil hori ere!” - lehengusuak oihuka bide-bazterretik aurreko egunetik ikusi gabeko lagunari bezala.

“Jakina Sonam! Jarri ezazu garagardo goxo hori epeletan bihar iluntzerako prest egon dadin. Zuri honek ez du ezer ulertzen baina gustura edaten du ematen diogun guztia!” - Antharkek erdi irribarrez erdi serio bidetik atera eta etxolaren atarira hurbiltzeaz bat.

“Azkenekoz berdina esan zenidan aldapa beherantz zindoazela, eta 6 urte igaro ditut zure zain, lehengusu. Etzirako garagardoa berriz ere usteltzen bazait aldapa gora zatozen hurrengoan ez dizut herrian sartzen utziko. Ez horixe. Tenzing pombu aztia deituko dut herriko bide guztiak zulo bihurtu daitezen zure oinek zapaldu orduko!” - Sonam gazteak erantzun algaraka, betiere distantzia mantenduaz elkarren artean ukitu gabe.

“Sonam, Sonam. Gaztea zara oraindik ere. Hiriko lagunak dakartzazun egunean gonbidatuko zaitut garagardoa edatera nire etxera. Orain ni naiz zuria ekarri dudana eta bihar zure etxolan eseriko gara ilargiak ekialdeko gailurren atzealdea hartu arte. Erregea ikusi dut, dirua zer den badakit, gure hizkuntza ia galdu dut, ez nauzu hemendik atera nintzen berdina. Baina ez ditut gure ohiturak ahantzi eta sherpa naiz. Bihar hemen izango gaituzu.” - begirada galdu xamarrek ukituriko irribarre erdiz.

Antharkeri gogoia bueltaka zebilkiola, zurrut beroak, sutondoak eta belar-zigarroak irabazi zuten etxolako bazter oro. Keak sortutako korrante mugikor koipetsuak sudurrarekin igurtzi zitezkeen, betileekin are, putz soil batez forma mugikor bihurriekin irudi berriak asmatzeko aukerak sortzen ziren bitartean. Horietako batek, zerri itxura hartu zion ufada batek, ekarri zuen Antharkeren gogoia berriz banbuzko horma artera.

Isiltasuna zen nagusi, suaren doinuak eta garagardoaren bustialdiek lagundutako isiltasun lodia. Kolpe hotza entzun zen ustekabean. Banbuzko atea parez pare zabalduz arnas-estuka zetorren gaztetxo fin batek oiho lehorraz moztu zuen barnealdeko hodei mardula: “Yaltseng!! Zatoz!! Altxa eta goazen bi urde zikin horien bila, hor behean ikusi ditut, ordu-erdira edo. Lamaren etxe ondoko ur-jauziaren bazterrean, gure jauzietako harkaitzpean.”

Besterik esan gabe, konturatu orduko haien urrats bustien oihartzuna baino ez zen geratzen gauaren beltza erakusten zuen ate irekian.

6.

Ohatze bila garo artean ari zirela, oin hotsak entzun ziren 100 bat

metrotara. “Agudo Zerrizakur, baten bat dator, jaitsi buztana, jaitsi!!!” - urduri Otsozerrik anaiari muturrarekin bultza egiten zion bitartean.

Gorputz sendo borobilak sasi eta adarren artean ahal bezala ezkutatu ondoren, banbu tenteen oihan hezean gora zetorren izakiari begira gelditu ziren geldi-geldi. Ez zuten oso bista onik, baina harresien artean ohiturik, begirada zorrozten ikasi zuten Lamuren etxaldean bizitako urteetan. Nola edo hala hasi ziren eurengana zuzen zetorrena irudikatzen.

“Otsozerri, hori al da hainbatetan entzun dugun Mendietako Basajauna?” - Zerrizakurrek inuzente antzean.

“Ixo!! Kaikua!! Bera baldin bada salduta gaude!!” - ezinegonaz dardarizo betean Otsozerrik.

Ordurako 50 metro ingurura zuten bi hanketako izakiak burua haizea usaintzen balego lez mugitu zuen ezker-eskuin. Inor sumatu balu lez. Baina berehala lasaiturik edo, zitzu bizian ekin zion aldats gora zekarren norabideari. Gihartsua eta arina zirudien, iletsua, hostoek sortutako soinuari aiduru, urrats sakonekoa. Zalantza gutxikoa.

Zerrizakurrek, seko izaturik, une batetik bestera Otsozerri besarkatzeko jauzi egingo zuela zioen begiekin. Anaiak, burua zein ahoa mugitu gabe muturra okertuta, argi utzi zion imintzio bakar bat egin ezker bere betiko gorrotoa irabaziko zuela. Oihaneko bero zapak izozturik, horrela eutsi zioten bi muturluze arrostuek izaki beldurgarriaren etorrerari. Pausuz pausu, iratzez iratze, banbuz banbu, azken uneko birarik ezean eurengana zuzen zetorkien, eta, Zerrizakur eta Otsozerri zerbait baldin baziren, izu-ikarari erraz harrera egiten zioten bi ume ziren. Urteetan aurrera joanak ziren, baina Lamuren magalean hazitakoak ziren, bere etxola-sehaskan etzanda hezitakoak, bere eskuetatik aia eta esnekiak dastatuz elikatutakoak. Eta orain, askatasunaren bila ekiterakoan guzti horrek bere ordaina zekarkien. Borrokan ez zekiten, ez zuten hortzik ezta erasotzeko eztenik. Ezta akuilurik. Zer egin maldan gora gero eta hurbilago ageri zen hanka-biko erraldoi haren kontra?

Himalaiako basajaun hark ez zuen itxura bereziki oldarkorrik. Errazago zitekeen herrixkatik erbesteratzer behartutako seme ez-onartua haranez haran odolaren xerka ehiza amaigabeen bizi den izaki madarikatua baino. Bata edo bestea izan, zerri bikotea asaldatzeko nahikoa zen haren oin-hotsaren hurbiltasuna.

Nolanahi, beldurren iturri oinkaria bidexkan gorantz zetorrela Otsozerri eta Zerrizakurren albotik igaro zen gelditzeko keinurik batere egin gabe. Euren alde izan zuten oihanak parez pare ezarri zien babes banbu-hesi hertsia. Eta ondorioz, ez zuten lipar batez gainera etorritako galdera erauntsiaren soluziorik ezagutu beharrik izan.

Berdin zion basapiztia, sherpa onbera galdua edo gandu itxiak eskainitako irudipen amestua izan, finituak ziren nahigabeak. Mirabetza finitu zuten bezala, oihaneko deabru guztien gainetik pasako ziren. Haiena baitzen euren etorkizuna. Askeak ziren.

7.

“Tikpa, nola aurkitu dituzu ba bi sasikume horiek? Ez ziren arroz-potxingo batean txipli-txapla ibiltzeko bezain kokoloak izango ezta?” - Yaltsengek indarrez.

“Zozoak ez adiskide, mika maltzurak dira bi horiek. Halere, aiton-amonek erakutsi ziguten sherpak beti mirotzari adi ibili behar duela oihanean.” - Tikpak hitz-erdiz.

“Eta zer esan dizu ba mirotzak?” - jakin-minez.

“Ahots ozenez esan dit gure lapikotik luzaroan ihes egin ostean, euren etxolatik alde egindako bi urde txepel zeudela erreka-zuloan lardaskeriatan.”

“Eta besterik esan al dizu ba mirotz berritsu horrek?” - Yaltsengek zirikatzaile.

“Badakizu aztoreak ez bezala, mirotzak haran-zulora doan haize ufada hartzen duenean haren hitz-etorria oso aberatsa izaten dela. Ala hori ere ahaztu egin al duzu Yaltseng?” - zuzen Tikpak.

“Niri argi hitz egin faborez Tikpa, ez daukat misterioetan aritzeko gogorik. Zerri pare horren bila ari gara, ez gaude hain gustuko dituzun azti-saio amaiezin horietako batean.” Yaltsengek ez zuen espero hizketaldi hark hartutako txirrista labainkorra. Eta urde-ehizak eskatuko zien lan gogorrean sartu baino lehen, nahiago zuen hats haiei, etxola hertsietako usain geldoei nola, freskura pixkatxo bat eman.

“Yaltseng, badakizu ni erro oneko ezpala naizela. Lobsan Lama Sherparen semea nauzu, eta haurtzarotik ondo ikasitako aitaren esanak zintzo jarraitzea estimatzen dut beste edozeren gainetik. Horregatik arimaren muinean min egiten didate arta-soroak eta etxolak gurutzatzen dituzten gaizki-esanek. Raksiak eztarrian uzten duen zapore garratza dela, belarren keak direla, diruaren soinua dela...Zure gainean hitz gogorrak entzuten dira gauero sutondo sutondo, eta egia badira, etorkizun eskasa duzu herrian lagun.” - gogor Tikpak.

Yaltsengek ez zuen sorpresarik agertu Tikparen hitzak jasotzerakoan. Entzungor egiten zuen halakoetan, maiz gertatzen ziren errieta haietan. Tikpa bere adiskide mina zen baina, eta ez zuen bere ahotik halakorik espero. Min egin zion bai.

“Arin Tikpa, Lamuk gure beharra du.” – hotz gehitu zuen Yaltsengek saltaka zihoala, aldapan behera sandalien gomaz harriz harri zapalduz.

8.

Lasto idorren gainean bizitzera ohituak, garoen ferekak laztanak ziren haien izterretan. Kirioak dantzan jartzen zizkieten teilatupeko ur-tanto haiexek, zuhaitz hosto zabalak azpian ametsetako dutxa bihurtuak zitzaizkien orain. Urteetan artaburuak jaten oka egin arte aseak, askatasunean edozein ziza zein sustrai goi-mailako sukaldaritza zitzaien. Dena zen erotzeraino bizigarri paradisu berri hartan. Horren bila egin zuten apustu eta azkeneraino eramango zuten haien apustua. Zer hoberik aske bizitzen ikasi behar duten bi zerrirentzako janariz beteriko oihan abegikorra baino? Zer maitakorrakorik gizakien agintearen ordezkariak eta ondokoek gobernatzen duten basoa baino?

“Eguzki gose naiz Zerrizakur” - Otsozerrik labur.

“Nik nahiago nuke basurde eme lerden bat” - Zerrizakurrek desiren munduan murgilduta.

“Eta zer diozu ezkurrez betetako ohatze bati buruz?”

“Lokatz epelez buztindutakoa bada ados.”

“Sortaldeko gailurretatik agertu eta ekiak hegitik bero eta zabal jo arteraino jaiki beharrik eskatuko ez digun goizez beterikoa?”

“Horixe bera Zerrizakur. Bertatik ortzadarrek kolorez estaliko duten ortzia ikusiko den ohatze busti bat.”

“Hori al da askatasuna Otsozerri?”

“Hori eta askoz gehiago mozolo. Inoiz amestu gabeko mundua daukagu eskura, zapore, ikusmira eta bizipen pentsaezinez betea. Jaramon egidazu, gaur da eguna bizitzen hasi garena

eta hemendik aurrera gizakiek ukatu izan diguten guztia dastatuko dugu. Hasteko hartu ezazu oinazpian duzun banbu-ziza hori eta barrura! Irentsi!”

Zerrizakurrek ziurtasunez horzkada bakarrean ziza jan, tartetxo batez murtxikatu, eta pozik, ozen oihukatu zuen:”Otsozerriiii!!! Aske gara!!!!.

9.

Antharkek bitartean etxolan eszena guztiaren lekuko gonbidatua zen gazte zuriarekin solasean ziharduen. Arto eta arroz garagardo epela gustura edan, artaburu erreak prestatu eta jan, hilberrian erretako oilasko zatitxoak bata bestearen atzetik gozatu, alkoholetan ondutako banbua suzko txili-piperrez lagundurik dastatu... bisitariari harrera beroa eskaini nahian sherpa herriaren gutizi guztiak bertan ziren. Ez zekien heldu berriak zer irizten zion haien jakirik onenei, baina apur bat ezagutzen zuen, batera egin zuten trekking garaitik hain zuzen. Eta edo aktore aparta zen, edo benetan ari zen guzti haiekin gozaten, etengabe luzatzen baitzuen eskua sutondoko eltze eta platertxoetara. Etxolan ez zen ia argirik, pare bat linterna zahar eta suaren itzalak baino ez. Dena den, nahikoa ke lainope ilun hartan guztiok elkarren mugimenduak erraz ikusi ahal izateko.

Gustura zegoen bai, ez zuen uste plantak egiten ari zenik. Berarekin etxez etxe ibilia zenean inoiz ez zuen kexarik agertu. Beraz, ez zuen orain bere familia etxera eramanean zertan aldatu. Sherpen herri batera joan nahi zuela esan zion mendian eta berak bere herrira ekarri zuen. Pozik egon beharko luke, eta horrelaxe ematen zuen. Bai bere amaren sukalderako esku trebea dastatzen zenean, bai artasoroen arteko bidexka eta karkabetan ibiltzen ikusten zenean. Nolanahi, bisitariak ez zuen hantxe egosten ari zenaren arrastorik ere. Barre egiten zion bere amak esaten zizkion hitzei, zer egingo zion ba, tutik ere ez bazuen sherpa hizkuntzatik ulertzen. Barre, zeri eta amak aurrez aurre zuen semearen kontra botatako akusazioei.

“Badakizu bizargorri, zure lagun Antharkek, nire seme Antharkek, 6 urtetan ez dit jaramonik egin. Alde egin zuen eta hemen eduki nau zain. Nola espero duzu zure lagun Antharke, nire seme Antharke, etxera bueltan datorrenean hartzea? Zer egingo zenuke zuk bizargorri? Esaidazu zer egingo zenukeen zuk arren. Edo zer egingo zukeen zure amak. Urrutikoa zara baina amak eta semeak denak gara berdinak munduan. Nik jadanik sartu zaitut gure etxean,

beraz emaidazu erantzun bat. Zuk zer egingo zenuke?” - Lamuk behin eta berriz zuriari. Afaldu bitartean, afaldu ostean, afaldu osteko zigarroen erretzean.

Antharkek bazekien amak ez zuela etsiko. Ez zuela ulertzen gazte heldu-berri hark ez zizkiola bere galdera errepikatuak erantzungo. Lamu zen, bere ama. Tematia, eta berarentzako ulerbera ez zen bezala, sukalde hartan esertzen zen beste inorekin ez zen ulerbera. Agian bai, agian Yaltseng izeneko nerabe harekin bai, alkoholetan amatatzen zituztelako elkarrekin bien nahigabeak. Beste inorekin ez ordea, eta are gutxiago bere seme Antharkerekin. Ez zion barkatu 18 urterekin gailurretara lanera joan izana, eta behin bere besoetako mutil-koxkorra etxeke ataritik desagertuta, ez zuen berarentzako biguntasun amiñirik gorde. Dena zurruntasuna, hoztasuna, distantzia.

6 urteren ondoren herrira itzulita, bere barnean gorderik zuen ama berreskuratuko zuenaren itzaropena. Hantxe zuen ordea ihardespena. Bere adiskide bizargorri zuriari eginiko norabide bakarreko galdeketan.

Norabide bakarra. Berea ere bizargorriari lotua, Kathmandurako bidean.

10.

Yaltseng eta Tikpa ez ziren garaiegiak, oraindik ere gaztetxoak ziren eta. Ez ziren indartsuegiak, oraindik ere soroetan besoak gihartzeko denborarik izan gabeak. Bi adiskideak ez ziren trebeegiak herriko futbol-zelai bakarrean, beraiek baino gazte arinago eta abilagoak ugari baitziren herrian. Aitzitik, biziak ziren biak ala biak, oso biziak. Eta goiz hartan, lehen eguzki izpi laranjekin batera, Lamuk etxe-aurreko iturrian aurpegia garbitzen zuen unean berean, haien bizitasuna zedarritu zuten. Orduantxe, etxolaren gaineko maldan 30 kilodun belarri-haundi bana bizkarrean huntzaz lotuta zekartela agertu baitziren, erakutsiz ez zirela gehiago bi ume. Agian ezta bi nerabe ere. Gizon sherpa zailduak ziren jada.

Yaltsengek bernak sastraken urradurez zaurituak zituen, Tikpak aurpegia ubelduraz josia. Antza ez zen erraza izan bi urde abenturazale haiek heldu eta lotzea. Zer esanik ez horiek bizkarrean zamatuta Lamuren etxolaraino karga-karga eginda eramatea. Zailtasunak zailtasun, han ziren bi ehiztariak euren harrapakinekin. Harro, akiturik eta errekonozimendu merezidun. Gaztarotik igaro gabe, nerabe izatetik gizontasunera jauzi eginda.

“Ai ene!! Baina, baina, baina... ai ene!!! Yaltseng, ondo al zaude?? Tikpa, zer duzu aurpegian?? Budaren izenean... gau osoa bi mutur-zikin koldar horien atzetik lasterka...” - Lamuk atetik oihu batean.

“Lamu!! Bi hauek ukuilura zuzenean eta guretzat raksi berezi horretatik apur bat!! Horrekin nahikoa dugu!!” - Yaltsengek deiadarka bat-batean gizondurik. Jarraian, adiskidea bilatuz: “ Tikpa, gaur utziko didazu raksi apur batekin ospatzen, ezta??” - ahots suabez aukera probestuz.

“Motel, gaurkoarekin irabazia dugu mozkorraldia. Bihar, biharkoak!!” - Tikpak nekea zerion irribarrez.

Lamuk Yaltsengen eskaria entzun eta ziztu bizian etxola barrura jo zuen bere raksi botila onenaren bila. Sutondoan oraindik ere lozorroan ageri ziren Antharke eta azal zuria, gertatzen ari zenetik urrun. Oso urrun. Hala ere, Antharkek loa arina zuen eta kanpoaldeko zalapartak erdi-esna utzi zuen.

“Zatozte barrura ene kumeok. Gau osoa oihanean eman eta gero epela behar duzue eta. Berehala prestatuko dizuet jateko zerbait. Bitartean har ezazue raksi basokada bana.” - etxeako andereak raksia edateko erabiltzen den egurrezko ontzi bana Yaltseng eta Tikpari ematen zien aldi berean. Bi gazte sherpak zeharo nekaturik zeuden, indarge, ia hitzik esateko kemenik gabe.

“Zuek lasai, egon lasai. Hartu patxada. Hori bai, jakizue gaurtik aurrera nire seme berriak zaretela. Zuek egin duzuen urtetan ez du inork nigatik egin. Orain arte ongietorriak zineten sutondo honetan. Gaurtik aurrera sutondo hau zuena ere bada.”

Bi gazteek begiak altxa gabe, edalontziari zurrupadaka.

“Begira hor lo dagoen txatxu hori. 6 urtean ez da nitaz gogoratu ere egin, bart beste bi urde esker-tzarreko horiek alde egitean hemen zegoen eta zer egin du? Bere laguntxo zuriarekin lo lasai gelditu.”


Yaltseng eta Tikpak bazeukaten haien sendia, haien ama, haien amona. Han ezin raksirik edan baina, eta zer hoberik Lamurenera nahi bestetan botila hustutzeraz joatea baino. Plazerrez entzun zituen Yaltsengek hitzok. Tikpak hainbesterako nekea zuen batere jaramonik ez ziola egin Lamuren esanei.

Antharkek, lo zirudien arren, bere amak esandako guztia entzun zuen. Argi zuen. Bai, norabide bakarra, bizargorriari lotua, Kathmandu.

11.

“Otsozerri, entzun duzu nola deitu gaituen Lamuk?” - malko betean Zerrizakurrek.

“Bai Zerrizakur, bai! Mutur-zikin koldar! Bai Zerrizakur! Entzun dut! Mutur-zikin koldar! Mutur-zikin koldar!” - zeharo erneaturik Otsozerrik. “Akabo gure ametsa, akabo gure bizitza.” – eta herioren izuak baino sortzen ez dituen marruen zurrunbiloaren menpe utzi zuen bere burua erortzen.



PATHIREN BELARRIKO MINA

Hirira joan beharra zeukan goiz hartan Pathik. Belarriko mina gainerik kentzen ez zuenez, aita-amak larritu xamar zituen. Haurra izanagatik ere, bazekien zer edo zer zeukala belarrarian, herriko pombu edo aztiak berarekin egindako dantza-osatzaileek kendu ez ziotena. Halere, ez zeukan inora joateko gogorik eta are gutxiago hiru eguneko bidaia eskatzen zuen Biratnagar hiriraino bidaiatzeko. Klasea galdu beharko zuen astebetetz, eta berak ez zuen klase egun bakarra ere galdu nahi izaten. Hain ondo pasatzen zuen han!!! Eskolaren aurreko zelaian egiten zituzten jolasak, korrikaldi zoroak, dantza libreak eta irakasleak gidatutako zirkulu-ariketak maite zituen, klaseko leihotik begiratu eta hodeien gainerik ibiltzea beste.

Anaia Tsoktuk bizi zen Biratnagarren, azken urtean ikusi gabea zeukan anaia nagusia, etxean zegoenean hainbeste barre eginarazten ziona. Sangye aitaren bidearen jarraitzailea, zamaketari hasi zen nerabe zela. Aitak diru pixkat egin zuenean Kathmandun kokatutako txerrietxalde bateko jabe bihurtu, eta txerriei esker egindako sos apurrekin, Tsoktuek mendiko lan gogorra utzi eta Indiarekin muga egiten zuen Biratnagarrera hegoalderatzeko aukera izan zuen, bertan erdi-mailako komertzio ikasketak burutzera. Mendiko asto-lana ez-egonkor bezain gogorra zela bazekien aitak, eta beste edozein aita sherparen antzera, ez zion semeari berak aldatzetan zuri zerbitzura bizkarrean 40 edo 50 kilorekin jasandako jipoi latzik opa. Horregatik, aurrezki gutxi batzuk pilatu bezain laster, Tsoktuek 16 urte bete zituenean, mendiko lanetatik atera eta ikastera bidali zuen lautadetako mugako hirira.

Pathiri ordea, anaia Tsoktuk desiratua ikustearen ilusioak ez zion atsekabea baretzen: ez zeukan bere gaiztotutako belarriak eskatzen zuen mediku bereziarengana joateko inolako gogorik.

Lehenengo 12 ordu oinez ibili bailara sakonean barrena, gero bere etxeko sutondoaren goxotasunetik ezertxo ere ez zeukaten lla eskualde buruko hotel kaxkarretan lo egin eta azkenik bi egun oso inurritegiak baino populatuago zihoazen autobus eta jeepetan emateko ikusmirak, ez zuen batere gogobetetzen.

lax amak lagunduta anaiarengana arazo berberak eraginda joan zenekoa gogoratzen zuen, eta ibilaldiak ez zuen poztasunez betetzen. Dibertsiorako aukerak izan zituen, kasurako

autobusean sherpa hizkuntzaz bestelakoak ziren eta inoiz entzun gabeko hainbat doinuren esanahia ama Sanydarekin asmatzen aritu zenekoa edo egun osoa parean egokitu zitzaion neskatoak batekin izandako esku-zarta-jolasetan eman zuenekoak. Baina ez zuen bidaia haren oroitzapen bereziki onik.

Pathiren nahigabe muturluzeak gorabehera, Sangye aitak eskutik heldu eta familia-etxalde aurrealdean zain zeuden bidaideekin bat egin zuten goizean goiz. Luzamendurik gabe ekin zioten egun osoa hartuko zien jardunari. Gauzak ondo, iluntzerako Ilam eskualde hiriburuan ziren arrosa eta dilistak afaltzen herrikide batek bertan zuen ostatu merkean.

Sukhetar izeneko euren herrian esan ohi zenez, ohatzez ohatze, herria bukatzen zen erreka-zintzurretik Kathmanduraino irits zitekeen herria utzitako sherpen etxe zein ostatueta lo eginez. Apur bat luzatuta, Arabiar Golkoko Erresumetara, Londresera eta New Yorkera ere helduko litzateke arta-hostoez eta artilez bigundutako gau segida hori azken urteotan. Inoiz guzti horietara bidaiatuko bazuen, Pathik aurreko urtean belarriko zornearen isuria moztu zion medikuarengana joan beharra zuen berriz ere. Abiatu ziren bada, aldapa luze-luzean, maldan beheara, mendi-girotik bero-zapa tropikalerako txirristan bezala.

Abian zirela, Pathi lerdan zihoan, jostari, esaneko bezain tente. Bere bost urtetxoekin, 12 orduko ibilbidea hondartzarako sandaliek egiteari ez zion zailtasunik ikusten, eta tartekamarteka, oinek harri koxkorren batean kateatuta geratzen zitzaion sandalia galdu arren, neskatoak ez zuen bidea egiteko batu zen taldetxoaren erritmo bizia mantsotzen.

Bost laguneko multzoa zen Sukhetarretik abiatu zena, inguruetako hiriburu zen Ilamen autobusa hartzera zihoana. Pathi, bere aita Sangye, lehengusu Sujam, bigarren lehengusu Antharke eta Antharkeren adiskidea zen azal zuria. Denak lerro bakarrean artasoroetatik oihanera, oihanetik arrozaren eremu terrazaz mailakatueta, arroz-landaketen urmaeletatik trokan beheara zetozen uhar trumoitsuetako oihanera, jarraian berriz maldetan bihurrituriko arroz-landareen lerroek zizelkaturiko ordeka kizkur bustietara.

Sartu-irten, sartu-irten.

Luze.

Eta Pathi beti isilik, aitaren eskutik helduta, hondartzarako sandaliekkin ttipi-ttapa. Erritmo biziz, bere gorputz txikitxoak zenbaterainoko bizindarra gordea zuen urratsez urrats munduratuz. Aldapetan jaioa izateak zer esan nahi duen gorpuztuz.

Bailararen sakonean hezetasuna eta sargoria ziren nagusi, bidaiarien bustidura izerdiak, giroaren umeltasunak edo basoko izaki hitzun berriak ziren kardamomo landaketen makina ureztatzaileek isuritako ur-txorrotadek sortua zen ezin jakin. Oihana bizirik eta bizi zegoen. Kathmanduko kale zaratatsuak beste. Zuloan neska gaztea aizkorakadaka, botatako enborraren gainean oinutsik egurretan. Lauak aldapari tarte bat irabazitakoan, kardamomoa sartzeko oihanpeko soiltze lanetako langile ixilak, lurretik bizpahiru metrora eraikitako banbu eta plastikozko etxola ketu inprobisatuetan geldi, atsedenean zaintzaile. Ertzean, goldea bufaloari lotuta ildo jorratzen ari zen nekazaria, oinutsik bufaloa baino babesgabeago lur bustietan belaunetaraino sartua.

Oihana utzi eta lau etxetako auzoa, auzokide bakan batzuk agerian zituena. Diosalik gabeko begiradak. Hitz gehiegirik ez. Ez dago geldialdirik, ezta harreman berezirik hasteko beharrik, begien arteko trukea baino ez.

Aurreraxeago, linbuni eta rai etnietako etxe-multzoak pasa ondoren, sherpak berriz agertu eta orduan bai: nora zoazte, zelan han goitik, nor da zuri hori, aita Kathmandura joan al da, katzu zigarro bat, neskato hori noren alaba da, totzi arroz-garagardo chang katilukada bat, ezin dugu presaka gabiltza... Gainaldeetako Sukhetarretik urtean lau arroz uzta ematen dituzten lur emankorragoen bila jaitsitako familia bat zen. Eta eskualde bereko sherpen artean ohi bezala, nola ez, Sangye espediziokidearen senitartekoak ziren etxe hartakoak.

Etxurreko emakumearekin oihu batzuk gurutzatu ondoren, aurrera segizioak, hurrengo atsedenenaren zain.

Bide erditik gertu, Bhandipur izeneko herritik ez urruti, eguzkiak goia jo zuen. Beroak goren eta urtu beharrean zeudelarik linbuni familia baten etxean geldialdia egin zuten. Pathik ez zuen ezer eskatu baina aita bazekien holakoetan fruta zuku batek bere onera ekartzen zuela alabatxoa. Hortaz mutilentzako nahi besteko katilukada chang eta Pathirentzako zukua. Sherpa

taldeak eta etxeke linbuni emakumeek nepaleraz ekin zioten elkarrizketari, nahiz eta guztiek bestearen hizkuntzak elkar-ulertzeko adina ezagutu.

Pathik, behin zukua eskutan, gogo Sukhetarreko artasoroetan zuen berriz, hain justu oraingoan aitak bufaloak zituen ordearen azpikoetan. Hura zuen bere txokorik maiteenetakoa, ahizpatxo Mimgma eta auzokide Tseringekin tximilikuarteka jolasten zutenean ezkutatzeko lehena aukeratzen zuena. Han zuen gogo, aurrez aurre beste mutil koxkor bat agertu zitzaion arte.

“Kaixo, ni Saran naiz, eta zu?” - esan zion nepaleraz.

“Ni Pathi” – berak ere eskolako nepaleraz.

“Nora zoaz? Etxetik urruti?” – Saranek lotsati, linbuniek hitzei emandako goitasun ia-oihukariaz.

“Medikura naramate, anaiaren hirira, belarran min dut” – Pathik ere lotsati, sherpak ez ziren haurrekin hitz egiteko ohitura handirik gabea. Klasean bazegoen irakasle rai baten alaba, baina heldu berria eta herritik kanpoko bakarra izaki, ia inoiz ez zuen berarekin hitzik gurutzatzen.

“Belarriko mina? Nik ere izan nuen, eta badakizu? Amak sendatu zidan” – harrokeria puntu batez, bisitariak zeudela entzun bezain pronto etxeke ganbaratik lasterka jaitsi zen 6 urteko gaztetxo biziak.

“Nirea ere saiatu zen, eta aita, eta aitite, eta auzokide Lobsan Lama, eta herriko pombu guztiak. Azkenean anaiaren hirira joan nintzen eta han arropa zuriz jantzitako mediku batek ia sendatu egin zidan aurreko urtean. Berarengana noa berriz” – etsipen hasperen suabe batekin bukatuz esaldia.

“Nahi baduzu nire amari esango diot zu sendatzeko” – triste xamar ikusi zuen Saranek Pathi eta, amaren sendaketa indarrak eskainita, bere oparirik onena egin nahi zion.

“Bai? Benetan?? Aitari esango diot. Orain anaiarengana goaz, baina agian bueltan hemen gera gaitzke eta horrela zure amak guztiz sendatu!” - irribarre zabala eta oparoetan oparoena erakutsiz bere lagun egin berriari.

“Nahi baduzu oraintxe esango diot!” – Saranek emozioz.

“Pathi! Bukatu zukua bagoaz eta, ilundu baino lehen lllamen egon behar dugu. Etorri laztana, bagoaz eta” – Sujam lehengusuak maitekor Pathiri, aita Sangye etxe barruan ordaintzen ari zen bitartean.

Sherpen artean haur zaintzak ez zuen aita eta amaren figura soilik hartzen, eta etzekoen, senitartekoen zein auzokideen artean nabarmena zen ingurukoen umeekiko ardura. Horrela, Pathi herritik aitaren eskutik helduta atera bazen ere, orduak aurrera joan ahala batzuetan inoren eskutik heldu gabe zein lehengusu baten zein bestearen eskutik helduta egiten zuen aurrera, beti erritmoari eutsiz, inoiz ere aitazulo agertu gabe.

Sangyeri entzun eta Saran lagun berria agurtu beharra Pathik:

“Hobe bueltarako uzten badugu Saran. Joan beharra daukat. Zure amaren ukenduak itzulerarako.” – bota zion agurrerako luzimendu gehiegirik gabe.

“Ondo da Pathi. Ama prest izango duzu bueltan” – bere hitzari sendo eutsiaz.

Sherpa asko igarotzen ziren euren etxurretik baina ez bazen arrazoi bereziren bat tarteko, gaixoren bat zela edo ekaitzak jotzen zuela edo umeren bat zebilela tartean, ez zuten euren etxepeko ostatu-denda xumean geldialdirik egiten. Diru gutxi zutelako gehienek, eta beti erdi-korrika zihoazelako sherpak, euren herritik eskualde burura eta eskualde burutik euren herrira.

Ohitua zegoen Saran sherpak ikusten, ohitu gabea sherpak ezagutzen. Eta are gutxiago bere urtetako neskatila txirikordunekin hitz egiten. Linbunia izaki, nepaleraz ere ozta-ozta moldatzen zen, eskolan erdipurdi ikasiarekin doi-doi. Halere, Pathirekin hitz egin ondoren ohartu zenez, adinkide sherpak ere dezente traketsak ziren nepaleraz. Horrek hurrengo baterako adoretu zuen. Ordutik aurrera ostatuan gelditzen zen ororekin hitz egiteari gogo biziagoz ekingo zion, duda barik. Hori erabakita, bisitariak ahaztu eta ganbarara egin zuen jauzi ziztu bizian.

Prest ziren denak edari kontuak kitatuta Sangye linbuni etxetik atera zenerako.

“Goazen adiskideok, laster ahulduko da bero-zapa. Gauzak ondo, bost orduetan lllamen gaude. Zer moduz zaude Pathi maitea? Ikusiko duzu zein afari goxoa edukiko dugun ostatuan!” – amultsu aitak alabari, aurretik zituzten orduak gogoan haurrarenengatik pairatzen.

“Ondo nago aitatxo. Zukua oso goxo zegoen!! Zenbat denbora zukurik hartu gabe!! Beste bat hartu ahal izango dut bihar ezta??” – ia-ia saltoka.

“Adooossss, biharko beste zuku goxo-goxo bat!!” – alabak erakusten zuen adorea barrua horditurik izan arren, suabe eta imintzio handirik gabe.

Bazihoan bada segizioa arroz-soro ureztatuetan barrena, abere, animalia, zomorro, hegazti zein bidexketatik eroritako bizilagunen igerileku inprobisatu. Urak irabazitako ingurune mailadiz josia, putzutik putzura metro erdi eskaseko xendra uzten zuena, goitik behera, ezker-eskuin abiatzen ziren bizilagunak igaro zitezten. Pistarik ez inguruetan, bufalo zamatsu baten pasatzeak eskatzen duen besteko zabalera baino ez. Eta linbuni adiskidearen ostatatik atera berri, igarobidea mozten zien bufalo erraldoiarekin topo.

Blaust, geldi, hormatzarra.

Erraldoia gorputza, demasekoak adarrak, eromenaren begirada geldoaz ibiltariei so. Pathik bereziki zituen gustuko bufaloak, eta etxaldean zituzten bostak ia-ia jolas-lagun gisa ibiltzen zituen: otzanak ziren oso eta txintik esan gabe beraien gainera egiten zuenean jauzi ez ziren aztoratzen, bufalo-taldea zelai batetik bestera mugitzeko ez zuen ia ezta txintik esan beharrik izaten, inoiz ez zuten euren arteko istilurik sortzen... itxura xelebrenko panpinatzat zituen Pathik, eta ez zen bakarria horrela hartzen zituena sherpa umeen artean. Hain zen zabaldua bufaloen jostailutasuna, ez zela arraroa, jolas-parkean bailiran, bazkan ziren bufalo taldetxoak ezkututzen zituzten oihan txatalen artean haurren barre-algarak entzutea.

Haatik, maitasun basati hark bazuen beste aldea: bufalo esnea zen Pathik maiteen zuen edaria, kartoitxoetan zetorren fruitu-zuku modernoak baino luzaz maiteago. Esne mingotsa zen, sarkorra, lodia. Ez zegoen ordea ume sherpa batek gehiago desio zuen katilukadarik. Bufaloen esnea ia beti gurinetarako erabiltzen zuten abeltzainek, eta etxe bakoitzean apur bat baino ez zen gordetzen abagune berezietarako. Ezkontzetan banatu ohi zen bikotearen hurbileko familiak edan zezan eta bestela gorputzaldi txarretan: marranta bat zela, tripako min bat, sukar

ezohiko bat, artatxiki-ardo mozkorrak ekarritako larritasuna... Horiek soilik zuten bufalo esnearen pribilegiarako eskubidea, eta teilatupe bereko familiaren ezkontzak urriak zirenez, ez zegoen ume sherparik etxeko azken txokoan gordetako kuian zegoen esne bereziari tragoxka bat ostutzeko inoiz tripako mina apropos gaiztotu ez zuenik.

Bufaloa ikusi eta Pathik esnea gogora. “Ummm... ze onaaa!! Eskerrak belarriko minaren kontura azken garaiotan nahi beste edan dudan” – bere kolkorako, bidaiari ekin aurreko tragoxkak gogoratu.

Baina Sukhetarretik kanpo bufalo guztiak antza hain otzanak ez omen, eta arta-soro bustien arteko bidexkan gurutzatuta zenak erabaki zuen ez zela bertatik mugituko taldetxo haren eginahalak gorabehera. Denek uretara jauzi egin behar aurrera segituko bazuten. Sartu uretara beraz, belaunetaraino busti, bufalo erraldoiari eskerrak eman eta aurrera.

Gutizi patxadatsuz marraztutako arroz igerilekuek oihanari egiten zioten berriz tokia bailararen azken tartean. Zigortutako oihana izanagatik, oraindik ere zaratatsua, itxia eta umela. Goialdeetako kardamomo soroetatik salbu, ihi, ira, garo mota, forma, kolore eta neurri guztiak biltzen zituen oihana.

Behin han zuloan Bhandipur herria agertzearekin bat, bortizki amiltzen zen bidea pista lokaztuan, ertzetik ertzera banbuz zizelkaturiko oihanaren ongietorri pankartek mendietako mundu galduari agur esateko tenorea heldu zela ohartaraziz.

Bhandipur zen diruaren munduaren hasiera Sukhetartarrentzat. Han zeuden lehen dendak, lehen poliziak, lehen land-roverak, ostatuak, traktoreak, lautadetako nepaldar ilunak, komertziantek. Han lehen plastiko poltsa pilatuen zabortege inprobisatuak. Han ohatzetarako garoz gabeturik hazitako zerrien lehen kiratsak, kutxetan zetozen lehen botikak, ohiko zubi eskegiak porlanezko bihurtzeko lehen lanak.

Eta guzti hori gutxi balitz, Katchenjungatik zuzenean zetorren ibai kementsuaren freskurak inolako eraginik ez balu lez, Pathik inoiz ezagututako lekurik beroena zen Bhandipur. Hotzak jota zegoenean eskuak sugarretan zuzenean jartzen zituenean ere ez zuen horrelako berorik ezagutu! Irakinaldian zegoen eltzea, horixe zen Bhandipur mendiko edozein seme-

alabarentzat, eta Pathik bere bigarren aldia zuenez bertan, zinez izerdialdi desatsegina sufritu zuen haizerik gabeko zulo hartatik aldapa gora ihes egin zuten arte.

Azken txanpa zuten desiratutako lamera heltzeko. Aurrean 1.500 metrotik gorako aldapa, beste hiru ordu erritmo finean. Eta arrastiria hurbil. Arin ibili behar ostatuan ilundu aurretik egoteko. Ibilaldiko nekea zamatzen zihoan guztiengan, nabarmenki pausu eta oin txikiko Pathirengan. Aitaren eskutik hartuta orain, auzokidearen eskutik gero, nekeak isiltasunean murgilduta zeraman neskatoa. Bufalo esnea, artasoroetako zuztar gozokiak, aurreko egunean haurren artean eromena sortuz eskolaurreko futbol zelaitik pasatu zen yak karabana, etxean utzitako ahizpatxo ia-jaio berria altzoan, bidean ezagututako linbuni mutil koxkorra. Denetik zerabilen Pathik gogoan, beste edozein ibiltari zailduk lez. Arranguretatik urruti.

Gutxienez, nekeak neke, basoan zenbat eta gorago, Bhandipurreko giro itogarritik gero eta salbuago.

“Aita” – Pathik taldekideen oin-urratsen eta oihaneko soinu zalapartarien arteko lehiari bere ahots jostaria oparitzuz.

“Zer alabatxo?” – Sangyek alboan zihoan haur txirikordunari begiratzuz.

“Hurrengoan etorri al daiteke Tsering nire laguna gurekin?” - orain arte ez zen ausartu aurreko egunez lagun-mina zuen Tseringekin izandako elkarrizketaren ondorioa aitari zuzentzen.

“Zer ba Pathi? Nirekin eta gure bidaia-lagunekin aspertzen al zara ala?”

“Ez, ez. Ez da horregatik aitatxo! Tseringek ez du inoiz gure herrixkako etxeak baino askoz altuagoak diren llaimekoak bezalako etxerik ikusi, eta nola aurrekoan kontatu nion iaz egon ginen ostatua oso altua zela... gaur bertan egingo dugu lo berriz ere, ezta?” – neskatoak egun osoa oinez eramanda ere, freskotasun harrigarritzuz.

“Badakizu ez dugula gonbidapenetarako dirurik eta Tseringek gurasoek are gutxiago. Dena den, ostatuko jabe den Jakmu Sherpa gure lehengusua da eta seriotan badiozu, hitz egingo dut berarekin hurrengorako. Bai? Hara Pathitxu! Hortxe dugu ostatua! Ikusten han goiko argi haiek? Horixe da gure gaurko helmuga. Ia-ia heldu gara!” - esan zion alabari bozkarioz, ahotsa altxatu gabeko irribarre zabalaz.

Pathik pozik entzun zituen aitaren hitzak. Eskutik gogorrago heldu zion eta gorantz jarraitu zuten hitzik gurutzatu gabe.

Gainontzeko taldekideak apur bat aurrerago zihoazenez ez zuten elkarrizketa entzun. Nolanahi denek zekiten bukaera hor zela, zuriak salbu, jakina. Hari bere lagun Antharke Sherpak esan zion: “Hortxe dago gure gaurko aterpea”.

Emari oparoko bide bazterreko iturrian zuriak ez beste guztiek ur fresko txorrotada edan eta aurrera. Ilunpetan egin zuten azken ordu erdia, 6 solairutako txapa eta oholezko eraikin dardarakor batera heldu ziren arte. Horra Yakmu Sherpa sukhetartarraren ostatua.

Ilam inguruetako hiriburua, hiru kale luzeko herri konkortua. Iparrera Katchenjungaren mendilerro izoztu arranditsua. Ekialdera Pattibhara tontor sakratu sinkretikoa, hindu, budista zein sinesmen zahardunen erromesaldietako helmuga zen piramidea. Mendebaldera oihanek ia gailurretaraino estaltzen zituzten malda amaiezinak, han nonbait bailara luzearen sakonean Sukhetar ezkututzen zutenak. Eta hegoaldera errepidea. Mundu berrietara zeraman zauria. Ilam mendialde hartako eskualde burua zen, hiriburuek dituzten azpiegitura gehienekin hornitua. Erdiguneko kale komertzial eta institucional bakanetatik kanpo, etxe solteak nonahi.

Eta hesitutako urdeak. Erdi zerri erdi basurde. Pathik Ilam zapaldu zueneko lehen aldian esana zion aitari: “Aita! Ez dut gehiago hiri honetara etorri nahi. Zerriek negar eta negar egiten dute ohol horietan hesituta. Zin egidazu gure herriko zerriek ez dutela inoiz halako negarrik egingo!”.

“Ados Pathi, zin egiten dizut gure etxeko eta herriko zerriek, gaur egun bezala, garo artean irriz jarraituko dutela beti. Sinesten didazu ezta?” – Sangyek alaba lasaitu nahirik.

Urteetan aurrera, esango zion Kathmandun zuten zerri-etxaldeari esker bizi zirela etxean. Kathmanduko zerri gixajoak Ilamen banakako hesietan zeuden zaratatsu haiek baino askoz baldintzago txarragotan baizeuden, jakina. Helduko zen Pathik hori ezagutzeko garaia. Ez oraindik.

“Bai aitatxo. Halere, ez dut gehiago hona etorri nahi. Zerrien kiratsa honek negargura ematen dit” – Pathik begiak bustita.

Urdeak hotz ziren, eta deseroso, eta zikin, lurretik metro erdira eraikitako lasto gabeko oholezko kutxetan banaka edo binaka egotera behartuak. Hortik haien marru etengabeak.

Nolanahi, Pathik Ilamera egin zuen aurreko bisitaldian, behin urdeek sortutako nahigabea joanda, zeharo txunditu zuten gauzak aurkitu zituen. Han ikusi zituen lehenengoz bitxigileak suarekin urre-zilarrak lantzen, han estreinakoz horma bete soineko koloretsu eta dirdiratsu, han azal-iluneko etorkin indiarren jatetxeetako mahaigain gozokiz beteak. Han ere igo zen lehenengoz autobus batera, jendez lepo lehertzeaz egonagatik, anaia eta medikua zeuden Biratnagarerraino bide erdia egiteko eman behar zituzten 10 orduen pausaleku gisa hasiera-hasieratik aproposa iruditu zitzaiona.

Aurreko bidaiako oroitzapenak etorri zitzaizkion Pathiri sei solairuko ostatuan sartu eta berehala. Dena zitzaion ezagun, eta aldi berean dena arrotz. Diosalak egin elkarri herritik heldu berriek eta herritik urteak zirela joandako ostatu jabeak, eta segituan ziren denak sukalde alboko egongelatxo batean halamoduz eserita. Menua, ohiko arroz platerkada suzko txiliaz lagundutako barazki zapoetsu eta katilukada dilista pareaz. Mendi eskualdeetako jana, egun osoko jardunak ezin desiratuago bihurtutako nahas-mahas dastagarria. Horri, sherpek lastotxo batekin zurrutadaka edaten duten artatxiki ardo epela, bi garagardo fresko eta Pathiren tetra-brick zukua gehituta, paradisuko afaria ibiltarientzat.

Hitz-aspertu gehiegirako astirik ez ordea. Ilundua zen gau hotza Ilamen. Ifarreko haizea zebilen, gailurretako izotzek laztandutako haize hotza, parajeotan kale-kantoi eta bide-bazter oro azken zokoraino husteko trebezia duen ufada txistukaria. Abendua zen, eta Ilamen altuera izotza eror dadin nahikoa ez den arren, jendea hotzetik ihesi etxe, etxalde, ostatuetako geletan bilduta zegoen. Herrian katurik ez zebilen, hesitutako urde zalapartariak bere baitan kiribilduak ziren. Zakur errariak herri-guneko hiru kaleetatik at alderrai, inguruan sakabanatutako ehunaka etxaldeetan sutondoek hormaren bestaldean sortzen zuten epelari ahal bezala igurtziz eta hatzaparrez heldu nahian.

Ohera beraz Ilamtarrak, eta Ilameratuak. Ohera linbuniak, brahmak, sherpak, indiarrek, raiak. Himalaia manta pisutsuaren besarkadaz ezartzen da egurrezko eta porlanezko eraikin multzoa den herriaren azken sotoan ere. Argi bakanak ostatuetako eta Estatuaren ordezkarietzan.

Ohera Sukhetarretik neka-neka eginda ordu pare eskas lehenago heldu den taldea. Eraikina egur eta xafla metalikoz eginikoa da, eta 6. solairura igotzeko eraikin osoa inguratzen duten balkoietan zulatutako mailadietan gora egin behar dute, lata estalkiak bailiran, lurra altxatu eta gora eginez. Guztiak daude leher eginda, eta denak gela bakarrean egoteak loa atzeratu ohi duen arren, bakoitzak bere koxkorra sortu orduko loaren erritmoa daramaten haize-melodiek sinfoniaren kategoria irabazten dute.

Pathiren ahots dultze kantaria entzuten da aitaren babesean loak hartzen ari dela: “aitatxo, sabaian entzuten diren lasterketa horiek zer dira, gure etxeko saguak gurekin etorri direla eurek ere anaia Tsoktukengana doazelako gurekin batera?”

“Jakina Pathitxu, haiek ere bera ikusteko irrikitan daude, guri bezala luze egiten zaie itxarotea”
– bere begiak ezin irekiz alabari eskuaz laztan egiten dion bitartean.

Segituan, denak lo.

Hurrengo goizean autobusa goizean goiz irteten da Biratnagarrerako bidean. Arnas festa gelan. Gailurretako haizeena kanpoan. Eta egurra gehi xafla metalikoz egindako eraikinaren dantza leuna aldiro-aldiro. Oso leuna, elur maluta bakarrak malda elurtuan behera duen leuntasunez, banbu hostoek udako arratsalde sargorietan aldarrikatzen duten xamurtasunez.

Urrats bat aurrera, beste bi atzera, sherpen gau-zirkuluetako dantza amaiezinetan lez, dantzari ekin dio eraikinak. Ilargi itzaletako dantza biribil eta errepikakor jendetsuak nola, gero eta ozenago, gero eta biziago, gero eta gogorrago, eraikinak hala.

Gelakideak esnatu baino lehen bik utzi diote arnasa-kantuari, eta blaust, danba, gogor ekin dio jira-birari ilargipeko dantzak. Mendi kaskoak aiduru, eraikin osoa badoa alde batera eta bestera gogor, zaratatsu, gupidarik gabe. Lo zirenak dantzan dira, herriko ezkontzetan lez, hildakoen eta badoazenen omenezko jaietan lez. Himalaiaren dantza da, eta Sangyek herriko mediku-azti guztiek dakizkiten hitzak oihukatzen ditu, natura, Himalaia, Pattibhara tontor sakratua, baretu nahirik. Gainontzekoak isilik, tente, erne.

Hitzak bai, deiadarrik ez, arrapaladarik ez.

Sangyek segi, beste munduarekin duen aurrez aurreko elkarrizketan darrai, ez da geldituko dantza bukatu arte. Pathi du gerrian helduta, aitari so, geldi, dena bukatu zain. Gelakideak zain. Luzea da dantza. Burrunba da kanpoan, ehunaka giza-ahots, ehunaka zakur zaunka, ehunaka urde oihuka. Gailur eta amildegien arteko fereken maitasun eutsiezinak harmonizatutako goizeko hiruretako abesbatza ustekabekoa.

“Aitatxo, gaur ere Katchenjunga lagun bila esnatu da?” – Pathik izututa.

“Bai Pathitxu, batzuetan Katchenjungak inguruko tontorrek besarkatu nahi izaten ditu bakar-bakarrik sentitzen delako han goian” – Sangyek alaba lasaitu nahian.

“Hemen gure herrian baino besarkada fuerteagoak ematen ditu, ezta?” – lehenengoz bizi zuen Pathik lurrikara bat 6. solairu batean, eta haurrak Sukhetarreko banbu eta oholezko etxaldeetan baino askoz salduago zeudela antzeman zuen berehala. Askoz gogorragoa bizipena, askoz gogorragoa lurraren dantzaldia, askoz gogorragoa jasandako ikara.

“Horrela da Pathi maitea. Hemen hurbilago gaude Katchenjunga handitik, eta bere besarkadak askoz maitekorragoak dira hemen!” – bera ere urduri.

Lurrikara bortitz xamarra izan zen, eta aterpetuta zituen ostatua ez zen bereziki kalitate oneko eraikina. Ilameko kaleak suak hartu zituen urte batzuk zirela, eta etxe garai berri gehienak porlan merkeari metalezko xaflak eta ohol finak atxikiz eraiki zituzten presaka. Sangye eta gelako beste guztiak horren jakitun ziren.

Aita-alaba salbu, gainontzekoak isilik ziren.

“Eta horregatik esan dizkiozu bestetan kantatzen ez dizkiozun otoitz zaratatsu horiek” – Pathik poliki-poliki gertatu berri zena normaltasunean barneratuz.

“Hurbilago egotean ozenago esaten dizkiot guzti horiek, ez dezan ahaztu gu ere bere alboan gaudela. Baina lasai laztana, bukatu dira besarkadak eta kantuak. Nahikoa da gaurkoz. Laster batean autobusa hartzeko jaiki egin behar gara. Etzan nire altzoan eta egin lo lasai, Pathitxu” – esan zion alabari berak ere mantak egoki paratzen zituen bitartean.

Kanpoaldean zalapartak gorenean zerraien. Zakur eta zerrien abesbatzan zakurrek zeramaten lehen ahotsa, hirugarrena zerriek. Ozena, erritmikoa, zuzendaria bailuten, isilaldi adostuak barne. Hain zen harmoniatsua, gelakideen sehaska kanta bihurturik, lurrikararen osteko bihotz taupada zoroak baretzen lagundu ziela. Denak ohatzetan geldi, Sangyeren aldarri erlijiosoak behin bukatuta, Himalaiari erruki eske. Esna, zain, umil. Gizakiak bezain izaturik zeuden lau hanketako biztanleen lantu melodikoak dena gauaren normaltasunera ekarri zuen arte. Gero eta suabeago, haien altzoan entzule zeutzan gizakiak ametsetarantz berriz zeramatzala bidaian. Bizi berria zuten fabula mugikorra mundu urrunetatik etorria bailitzan.

Konturatu orduko, goizeko bostak jo zuten. Pare bat ordu lehentxeago gertatutakoa aspaldikoa zen jada. Inork imintziorik, keinu berezirik ez. Sherpen normaltasunak kutsatuta, zuriak ere hitzik gurutzatu gabe jaso zituen bere gauzak. Goizaldeko printza ubel-arrosak aztoratu nahi ez balituzte bezala, lurrikarak eskuzapiak balira lez ibilitako eraikinen patxada post-traumatikoa urratu nahi ez balute bezala.

Gau luze ezustekorik gabearen ondorengo, goiz ohikoa bailitzan.

Gelatik atera ziren denak. Egurrezko mailadietatik eztiki sei solairuak jaitsi, eta ostatuko semea agurtzeaz bat, ziztu bizian abiatu ziren Biratnagarrera eraman behar zituen autobusa hartzera.

Ilunpetan oraindik ere, tabernatxo gutxi batzuek piztu berri zituzten gas-sukaldeen sugar urdin-apalek argizatutako pare bat aldapa bakarti igo zituzten autobusak, furgonetak eta jeepen artaldea bilduta zegoen saroiraino. Ordurako jende multzoa zain zegoen txartel-leihatilaren aurrealdean zegoen itxarongela izoztuan, ilararik gabe baina kode ezezagunen arabera antolatutako hurrenkera adostuan. Sukhetarretik heldutako taldetxoak bere lekua hartu zuen, berehala ingurukoekin diosalak tartekatu eta takilak noiz irekiko zituzten galdetuz. Behin antolatuta, Sangye eta Pathi bertan lekua gordetzen geratzen ziren bitartean, beste hiru taldekideek gosaritarako txanda hartu zuten inguruan zeuden oihaldun ateko oholezko tabernatxoetako batean.

Autobusak geltokia 05:45an uzten zuen, hogei minutu eskasean, eta oraindik ere takilak hertsirik. Ez zen arrunta, are gehiago jakinda, ohi zenaren kontrara, 40 bat lagun Biratnagarrera eramango zituen autobus hartarako ez zela aurre-salmentarik egon. Denak leihatila ireki zain.

Sujam, Antharke eta zuriak te-esne bero basoerdi bat hamarnaka sherpa, rai, limbuni eta brahama jendeez inguratuta hartzen zuten bitartean, mahaikideetako batzuk jada arroza eta dilistei emanak ziren zeharo, goizeko 9ak aldera autobusek gosaritarako egin ohi zuten geldialdiari itxaron gabe. Jatun biziak, denak presa bizian autobusak irteera lerroan zeudelako eta berandu sartzen zenak 8-10 ordutarako lekurik deserosoena ziurtatua zeukalako.

Lagunak etorri bitartean Pathi eta Sangyek solasaldiari heldu zioten:

“Aita, bihar iluntzerako Tsoktukekin egongo gara ezta?” – Pathik.

“Bai alabatxo. Urtebete joan da berarekin azkenezkoz egon ginenetik. Berehala pasatu da denbora, ezta maitea?”

“Egia aitatxo, oso azkar pasatu da! Baina Tsoktuk zergatik ez da gehiagotan etortzen gu ikustera? Nik gehiagotan egon nahi dut berarekin!” - Pathik anaiarekiko distantzia ezin ulertuz.

“Pathitxu, gauzak ez dira errazak guretzat. Berak ezin du gehiagotan etorri lan eta ikasi egiten duelako. Eta urruti dagoelako. Eta bere soldata gure Sukhetarreko etxerako, eta zu eta zure ahizpen ikasketatarako delako.” - aitak gordin.

“Ba horrela bada ez naiz gehiago klasera joango bera etxera gehiagotan etor dadin” – triste Pathik.

“Zer diozu Pathitxu. Ez zaitetz zure anaiarengatik kezkatu. Ikasketak bukatzean diru asko irabaziko du eta nahi bestetan etorriko da herrira. Edo agian berak beste etxalde bat eraikiko du gurearen parean zure ama eta zure aitaren alboan egon ahal izateko. Agian zu izango zara urruti, Kathmandun, Europan edo Estatu Batuetan biziko zarena alabatxo” – Pathiren adimen biziaren jakitun, Sangyek alaba nagusitzerakoan atzerriratuko ote zitzaion izua zeraman barren-barrenean.

“Nik hori inoiz ez aita. Nik ez dut Sukhetarretik irten nahi ez bada anaiarengana bisitan joateko” - haur batek adieraz dezakeen emoziorik sentituenaz.

“Pathi, ez ahaztu medikuarengana goazela” - Sangyek alabari emozioa apur bat jaitsi nahian.

Eta hori esatearekin bat, leihatila ireki zuten.

Nahaspila, zalaparta, hurrenkera adostuak huts. Hamarnaka lagun ohol horixka zaharkituzko arasa baten erdian zabalduak beiratxo baten bestaldean zegoen aurpegi tibetarreko gizon gazte baten hitzei adi. Zalapartak isiltasun osoari lekukoa. Tibetar jatorrizko hizlariari denak so, goizaldeko argiek koloreztatutako kaleak bat-batean gaueko ilunpetara itzuli zirela esango luke edonork, hain zen nabarmena inongo soinuren falta erabatekoa. Hain zen giro trinko, gorria, mardula, motxila bakar baten mugimenduak hizketaldia moztu izan balu, bidaiari saldoak motxila bera jipoituko lukeela sinesgarria litzaiokeela panoramaren ikusleari.

Bat-batean isildu da garraio-enpresako langilea. Eta ekin dio zalapartak bere saio berriuari. Ozenago. Luzaz aztoratuago. Arauzko nepalera lekua utzi dio barreneko haserreak adierazteko azaltzen diren hizkuntza ezkutuei. Hamarnaka elkarrizketa gurutzatu.

“Zer pasa da aita? Ba al dugu autobuseko tiketik?” - Pathik ezjakintasunetik irten nahian.

“Ez, alabatxo, ez dugu tiketik” – Sangyek ezin sinetsirik beraien zoritxarra.

“Zer ba? Jeepean joan behar al dugu?” - nahiz eta arinagoak izan, leku eskasiagatik okerragoa izan ohi zen jeepean joatea.

“Jeepean ere ez gara joango Pathi” – lehor.

“Ah orduan kotxe batek eramango gaitu?” – aitaren trazari tamaina ezin harturik.

“Pathi, ezin dugu Biratnagarrera joan. Gaurtik aurrera 10 eguneko garraio greba dago. Hartu zure zorroa eta goazen etxera”. Pathiri zuzendutako hitzak bukatu eta maldizioka hasi zen Sangye. Iluntzeko lurrikaran salbu mantendu zituen Himalaiako Pattibharak berak ez zuen nahi bere seme-alabak lautadara irten zitezen. Beste besarkada mota bat zeukan eurentzat prest, oraingoan limbuni jendeek prestatuko greba luze baten bidez.

Besarkadak betiere.

Orduantxe zetozen Sujam, Tenji eta zuria alboko tabernatxotik. Te-esne bero tragoxka bukatu berri, bazirudien leihatilatik ateratako albistek sortutako supituko dardarizo kolektiboa

baretze bidean zegoela. Sangye eta Pathi gauzak jasotzen ari zirela ikusterakoan, hirurek argi ondorioztatu zuten autobusik ez zutela hartuko goiz hartan. Ez zekiten oraindik zenbat egunetarako greba zetorren. Bai ordea denbora nahikoa izango zutela grebaren xehetasun guztien gainean aritu, te-esne bero-beroa asetu arte edan eta eskualde buruko hiru kaleetan nekatu arteko gora eta beherak urratzeko.

Apurrak ziren denda errepikatuetan kuxkuxean ibili, koloretako gortinen atzean ostendutako zapairik gabeko gas-sukaldedun ostatuetan eserialdiak txandakatu, artisauen alboan orduak eman, Sukhetarreko sherpa herrikideekin albisteak trukatu eta eguneratu. Denetarik eta luze, aukeran.

Bukaera jakinik gabeko barealdi haren ikusmiran, alegera zegoen bakarra Pathi zen. Ez zuen hurrengo egunean anaia ikusterik izango, aita eta bera ez baiziren autobusa zein egunetan irten zain han geratuko. Ezin halabeharraren esku utzi ostatuetako egonaldien luzera. Tsoktuken jolasek itxaron beharko zuten, eta tristetzen zuen horrek. Baina bazihoazen bueltan herrira: arta-zuztarrak, bufalo-esnea eta eskola-kideak zain zituen. Bazihoazen etxera bidean etortzerakoan ezagututako Saranen amaren ukenduen bila. Eta bozkariotzen zuen guzti horrek. Klaseko atsedeen orduko kanpaiak beste. Eskola aurreko hodeien artetik jauzika sortzen ziren ortzadar bikoitzek beste. Banbuen eta artasoroen azpitik tximilikuarteka jolasten zuteneko lasterketak beste.


Gau bakarreko bidaia luzearen helmugara helduak ziren.



JAUZIA

Goizeko hirurak. Hotz egiten du etxolatik kanpo. Jendez lepo dago pare bat metroko sabaieko gela. Dun-dun-dun entzuten da gauaren aginduetara isildutako malda luze-luze-luzean, etxeak ilunpetan han-hemen, uraren sehaska-kantapeko oihan txatalak han-hemen, bufaloak lo han-hemen. Dun-dun-dun. Batzuetan sorburu bakarreko danbateko erritmoduna, beste batzutan lauzpabost danbatekoren abesbatza desafinatu eta erritmo baldarrekoa. Beti ozen, gaueko urradura karrankaria. Oilarrak alboko etxolan habeari lotuta, euren azken orduaren zain. Artega, zeremoniara sartzen den oro euren burugabetzearen arduradun balitz lez begiratzen dute, begi eroz. Haize ufada hotzak aterik gabeko sarreratik barna, barruan ez da hotzik. Surik ez da, ez da hotzik. Izerdia, zigarro industrial garestien kea mendiko belar garratzen kearekin nahastua. Hogeita hamar lagunen arnasak, gorputzak gorputzetatik gertu, fereka saihestezinean. Ez dago ihesbiderik, ez dago atetik sartzen den haize ufada izoztutik babesteko mantarik, ezin da besoen, bizkarren, izterren basotik aldendu. Orduak dira danborrak eta eztarriak kantuan hasi direla. Bi lama bizardunen irakurketa kantatu etenik gabea amaitu da. Txintzarriekin adierazten dute amaiera. Dun-dunak berrekin dio. 5 dira aldi berean. Dun-dun-dun, dun-dun-dun. Elkarrekin, batera ez. Esku ezberdinak danborrei eragiten dieten adar fin okerrak sakatzen. Txandakatu ere egiten dira, librea da perkusio taldera sartzea. Lama bat pikotxetan. Bestea lo, etzan da, artaxiki ardo lar. Burrunba sarkorra da, ozena. Lo daudenak itzartzeko ez bestekoa. Dun-dunak gero eta arinago, herriko aztien taldea, lamen aurrean eserita dagoena, kantatzen hasi da. Bat da buru, beste bi azti-taldekide ditu eskuinera eserita, hormaren kontra bizkarra emanda. Ikasten dituen apopiloak aurrez aurre jarrita, adi doinu, mugimendu, hitzei. Ikaslea atera da erdira, makurtu, begiak itxi, bere barrura ari da begira. Isiltasunik ez dago, hura bere mundura sartzen ari da. Gehitu zaio azti-buruaren semea, Tenzing handiaren oinordeko izatera deitua dagoen Tsetan. Prestatzen ari dira, jauzi egitera doaz. Gelaren itxiak, txikiak, auzokideen hizketak, aztiaren doinu errepikakorrek, zupada, zurrut eta algara zaratatsuek aldiro moztuak, dun-dunak, lotan daudenen zurrungak, ezerk ez ditu jauzilariak prestaketatik egozten. Jaiki dira eta soineko zuria jantzi dute. Begiak itxita. Lotu dute espartzuzko soka tenkatua gorputzean zehar. Ekin diote lokatzezko lurrean hanka hutsen bidezko marrazketa erritualari. Dun-dun-dun, dun-dun-dun. Eserita daudenak mugitu gabe, osatu dute desfilerako pasarela. Bost bat metroko atzera-aurrerako ibilbidea. Bi gas bonbonek

argitzen dute gela, dantza arritmiko eroa hormetan itzal bizi bihurtzeko beste. Zuri zikineko bi gonadunak izerdi patsetan, bertso ikasia okertu arte murtxikatuz, sartu dira zurrunbilora. Gorputzak ertzeraino eramateko prest dira. Ez dute etsiko, bat bi, dun-dun-dun, jira, bat bi, dun-dun-dun, bira, bat bi, dun-dun-dun, igitaia eskuan, jauzi, oilarra heldu eta kiribildu, heldu eta kiribildu, heldu eta moztu, dun-dun-dun, oihu, bat bi, jira, bira, ez dago geldiunerik, arnasarako paradarik, soineko zuriak estutzen dituzten sokek gorputzei ziba baten gisan eragingo bailien. Argizariz egindako Buden panteoi osoa begira dago teilatupeko apaletik. Adi. Danbor jotzaileak, lamak, etxeakoak, auzokoak, denak adi. Dantzariengan baleude lez bertaratuen gogoak, begiak beste. Itzalak dira arretatik salbu dauden bakarrak, euren kasa ari dira, zuri-beltzeko dantza paralelo librea hormetan, kea, izerdia eta perkusioak itzalei haragia eskainiz. Haize izoztua sartu da, gau osoko ufadarik hotzena. Sabaia eta lurraren arteko tartea hustu da, hoztu, dena bilakatu da doinu. Behin materia galduta, azken taupadaren balioa hartu du danborren azken kolpeak. Danba. Bi dantzariak gelditu dira, azti buruak oihu luzea atera du gorputz iharreko eztarri estutik, altxatu dira pikotxetan zeuden hiruna lagun, hironaka dantzari bana helduta, haien gorputzen bibrazio kontrolaezin inkontzienteari eusteko, barealdira sorbalda lagun en indarrak sartzeko, jauzitik etorrita kolpe mingarriak saihesteko, oihaneko sakonetik, gailurretako ertzetatik, gaueko izar kantarietatik arta-hostoen sabaiepeko gela jendetsu izerditsu hartara egindako sarrera tupustekoan, azal laztu lagun en babesak bestaldean jolasean dabilena lastozko ohearen amultsutasunaz artatzeko.



LAKSUMEN IRRIBARREAREN ATSEDENA

“Han datoz” - bere kolkorako Laksumek, aldatz gora Antharke eta zuria zetozeela ikusita. Hartziko ertzek hesitutako bidexkan, bere 6 urteek emandako baldartasun trebearekin, mailadiz mailadi ahal bezala jaisten zen Laksum. Izebaren etxera zihoan, bere kabuz, bakarrik, ume sherpak bidexketan ibili ohi diren lez: batean ordubete gora, bestean ordubete behera, honakoan bi ordu malda zabaletatik goiko muinoetarantz, harakoan ordu eta erdi bailararen sakonerantz... etxerik etxe beti, sherpa familia zabalen sare amaigabeek besarkatzen dituzten hedadurak urratuz.

Umeak harat-honat oinutsik gehienetan, onenean gomazko sandalia merke batzuen geruzaren babesaz. Goiz hartan, amaren enkargua jaso zuen Laksumek: “Seme, segi izeba Dolmarengana eta esaiozu bihar goizean oilarra hilko dutela auzoko Lamuren etxean, eta igotzeko, Lamuk bere alboan nahi duela sutondoan”.

Guraso gazteak zituen Laksumek, Sujam eta Shita aita-ama, hortik oraingoz bi urte bete gabea zen Pushpa arrebatxoa beste anai-arrebarik ez izatea. Familia txikia inguruetan ohikoak ziren etxe populatuekin alderatuz. Hortaz, Laksum azkar asko hasi zen etxeke seme nagusiak bete ohi dituen lanak betetzen: “segi hona seme”, sutarako adaxkak bildu, zerrien ohatzerako garoa bota, ur bila joan, Pushparen ibilerak zaindu, “segi hara seme”... eginbeharrak bihurtu zuen Laksum esaneko, eta ez alderantziz. Otzana zen, lasaia, hainbatetan luze izozturik geratzen zitzaion irribarre errazekoa. Eta izozte horietantxe irabazten zuen bere irribarreak itxurarik komikoena, hasierako lotsak, jolasak edo emozioak sortutakoaren ondoren ez baitzuen barre egiteko gogo berezirik izaten, nabarmen igartzen zitzaionez. Baina hor eusten zion, tinko, irribarre oparoaz, bisaiaren ertzetik ertzerako eskaintza dohaineko eskuzabalaz. Askotan kandela parean zuen ezpain ubel lodiek marraztutako limoi erdiaren apaingarri, are benetakoagoa bihurtuz Laksumen esker oneko irria.

Berak ez luke agian gehiago barre egingo, bakarrik balego ez luke eskainiko. Familiarekin, adinkideekin, auzokoekin, herrira hurbildutako zuriarekin zegoen ordea, eta haiekin barreak irabazten zuen bere keinuen artean nabarmen, eguzki-lorearen imintzioen artean eguzki izpien aurrean azal-luzatzeak irabazten duen bezalaxe esker onez biluzten denean.

“Han datoz” - bere kolkorako Laksumek, han behean bere auzoko Lamuren seme hiritartua eta bere lagun zuria zeudela ohartuta. Banbu artean azeri gazte bat bezain trebe ibiltzen zen Laksum, batetik bestera jauzika, itzulipurdika, arrastaka. Oihaneko semea zen, hark hazia ia amaren laztanek bezainbat. Ez zituen alperrik igarotzen orduak eta orduak etxearen pare-parean zuten basoxkan belaxkei segika, basakatuei harrika, basoilarrei txistuka, azkonarrei iheska, mirotzei kantuka. Denak ezagutzen zituen, izenetik asko, ez bazen beste haranen bateko bisitaririk zutelako oihan txatal hartako biztanleek.

Jada haurtzaro gorritik hasia zen bakarrik geratzen etxe-inguru hartan: ama haran-sakonerako arroz-jasotzetan zein magal-garaietako artasoroetan, aita lanean atzerrian, auzoko Lamu zaharra etxetik ezin aterata... Orduak luze ziren eta Lamurekin sutondoan egoteaz aparte, basoa zen bere jolaspatioa. Etxeko zereginak egiteko gazteegi, eskolara joateko txikiegi, herriko gainontzeko umeak urrutiegi. Basoa eta basolagunak. Horrela hazi zen 4 urte bete eta eskolara joan arte. Ordurako, umeekin tximilikuarteka baino ohituagoa zen basurdekumeen atzetik lasterka ibiltzen zein pikaratzen arraultzak biltzen.

“Han datoz” - gehiegi pentsatu gabe atera zitzaion laguna zuen bikotea aldapan gora zetorrela igarrita. Antharke auzokidea izan arren, ez zuen ia ezagutzen. Bere oroitzapenetako parte zen, ezin jakin ordea berari buruzko elkarrizketak entzunak zituelako edo inoiz zuzenean ikusia zuelako zen. Ezin jakin! Hori bai, bere ama Lamuk bezalaxe hitz egiten zuen, tonu berbera zuen, imintzio, keinu eta hitz-joko berdinak. Bere etxeko aita-ama eta arreba gazteaz gain, Lamu zen bere hurbilenekoa, bere auzoko hurrena, bere zinezko amona, izeba eta hezitzailea. Nola ez hartu Antharke bera ere, bere ezezaguntasunean, hurbileko maitatu eta konfiantzazkotzat? Antharke han zenean, amari bisita egiten, bat gehiago zen sutondoan, bat gehiago Laksumi berari arrozetarako platerak atera zitzaizkion eskatzen, sutarako egur bila atera zedin agintzen, bere barre-iraunkor-izoztua barre-algara bihurtzeko kilimak eragiten.

Maite zuen Antharke bai, nahiz eta ia-ia ez zuen ezagutzen.

Era berean, Antharkerekin zetorren zuria ezagutzen zuen aurretiaz ere. Antharkeren oroitzapenarekin lotzen zuen, ez zekien noiz, ezin neurtu, baina bera eskolara joateko aski nagusia ez zen garaietan berarekin egona zela iruditzen zitzaion. Bigarrenez ikusten zuela uste zuen. Ezin zuten hitzez elkar ulertu, zuriak jolasean sherpa hizkuntzan botatzen zizkion lau

hitzez gaindi ez baizuen beraien mintzaira batere ulertu ez elekatzen. Ez zuen ezta herriko eskolara hurbiltzen hasi zenetik ikasten ari zen nepalera arrotza ere hitz egiten. Beraz, bere aurrean isiltzeko joera hartzen zuen. Barre egin eta isildu. Bere lau hitz solteak entzun, noizean-behingo haren mugimenduren bati begiratu, algararen bat bota eta ostera ere barre izoztuaren isiltasunean murgildu.

Zuriak ere Lamuren etxean lo egin, beraiekin sutondoan goiz-pasa egon, euria ari zuenean mendiak estaltzen zituzten arratsaldeko lanbroak banbu eta lastozko etxetik atera gabe beraiekin begiratu... Nola ez sentitu zuria ere bere hurbileko, nahiz eta itxura arrarokoa izan, nahiz eta bere bizitzan ikusten zuen lehen azal zurikoa izan, nahiz eta beretzat erabat arrotzak ziren arropa eta traste andana izan. Nola ez? Hurbilekoa zuen, bai.

“Han datoz” - zaparradak zirenean karkaba bihurtzen zen bidexkan banbu hostoak zapaltzen zetozenez, berehala entzun zituen oihaneko soinuak zeharo ezagun zituen Laksumek. “Non ibili ote dira” - bere buruari galdezka haurrak. Berehala lotu zuen parajea han alboan bizi zen Bangerarekin, berea baizen bertatik hurbilen zegoen etxaldea, malda luze baten goialdean zegoena, aurrez aurre lau eta bost mila metro arteko gailur berdeek osaturiko ikusmirari adi begira kokatua.

Laksumek sei urte izanagatik, aski ezagunak zituen bere herriko txoko bakoitzean zein sherpa adarretakoak bizi ziren, gehienbat banaketa orokor bati jarraiki antolatuz bere sailkapena: familiakoak eta gainontzekoak. Bangera amaren anaia zen, hain zuzen, amak zituen 20 - 30 anai-arrebetako bat. Izan ere, sherpen artean guraso berekoak baino askoz senitarteko gehiago dira anai-arreba. Hortaz, Dolma izebaren etxera bidean, Bangeraren etxean geldialditxo bat egin eta katilukada bat chang hartzea zen egarria agertu ezkeru zituen aukeretako bat.

Banbuak zuhaitz mardulagoei lekua uzten zien eremu haietara heltzen ari zela, espero zenez, Laksumi chang-aren arra hasia zitzaion agertzen, bai baizekien amaren anaia Bangeraren lapikoa zain zuela. Gainera, atsegin zuen Bangera, atsegin zuen bere emaztea eta baita haren 3 alabak ere, lirainak hirurak. Nagusiegiak berarentzat oraingo, ez horregatik gutxiago mirestuak. Etxean entzuna zion Sujam aitari nola Bangerari alaba lirainetako bat ezkondu zitzaion aurreko astean Makalutik zetorren mendilerroaren bestaldeko sherpa mutil batekin.

Eta chang-aren esperantza, ezkontza ospakizunetik sobratutako zerri egosi zatiren batekin borobildu zitzaion Laksumi.

“Hori pagotxa nirea zerri muturren batek nire eskuetan bukatzen badu” - burutazio horiek zerabiltzan umeak inguruetara hurbiltzen ari zela.

Nahi izan gabe, ontasunez beteriko irribarrea agertuz zihoakion, gosea urdailean agertu ohi den lez, tai gabe, leuntasunez, amaren anaiaren etxeko lastozko teilatua eta etxaurreko zabalgunean sherpek ezarri ohi dituzten koloretako otoitzerako bandera budistak sumatu ahala. Poliki-poliki, barkamenik gabe, gelditzeko datorrela ohartaraziz.

Iribarre izoztua bere tokira.

“Han datoz” - nabaritu zituen Bangeraren etxerako azken errebueltaren hartzeraren zihoala, sugeak harrapakin duen saguaren dardara urrutitik sumatzen duen bezala. Aurreko egunean bertan egonak ziren sutondoan ordu luzez elkarrekin, Lamu eta Pushpa bere arreba txikia ere han zirela. Amak egun osoa hartzen zuen joan-etorria egin zuen Ilam eskualde burura, eta aita basoan zen lanean egurretan. Hortaz, eskolarik gabeko larunbata zenez, beste behin Lamuren etxean eman zuten Laksum eta arrebak ia-egun osoa, gurasoak etxeratu arte hain justu. Eta baita ederki asko pasatu ere mutil koxkorrak haiekin.

Nola ez disfrutatu bera eta Lamu zaharrak bero bila inguratu ohi zuten sutondoa, hutsik egon ohi zen sutondoa, jendez lepo kausituta?

Aurreko egunez, goiz-goizetik bera etxean sartu orduko, zuriak herrira bizkarrean ekarri zuen zorrotik zenbait aldizkari atera eta Laksumen eskuetan utzi zituen nahieran ibili zitzan. Haur sherpak inoiz ikusi gabeko koloretako argazki eta irudiak zituen paper haietan parez pare, eta hasieran baldar xamar aritu bazen ere orriak pasatzeko ariketan, laster hartu zuen edozein europarrek aldizkariak ikuskatzen duen besteko abilezia. Orriak joan, orriak etorri, orri dantza hasi zuen Laksumek berarentzat ikusgarri bezain ulergaitz ziren koloretako liburuxka haiekin. Ikerlari mikroskopiodunaren zehaztasunez beteriko orri dantza.

Eskolan etxeko sherpa hizkuntza ukaturik eta ezkutaturik, nepalerazko alfabetoa ikasia zuen bere 6 urteekin. Bada aldizkari haietako alfabeto irakurtezina baino, are latzagoa zitzaion

argazkietan agertzen ziren mendi, baso eta gailurrak zein jende haiek zituzten tramankulu eta arropak bere ezagutzen artean kokatzea.

Non ote zeuden mendi haiek? Nork egiten omen zituen argazki haietako zera arraro guzti haiek? Nortzuk ote ziren argazkietako jende zuri haiek? Berak zuri bakarria ezagutzen zuen, alboan zuena. Ba ote zegoen zuri gehiago? Argazkietan agertu bai, baina berak behin ere ez zuen beste zuririk ikusi, beraz ez zeukan guztiz argi. Agian kilimak egin, hitz solte pare bat sherperaz bota eta hurbiletik argazkiak ateratzen zizkion zuri hark egindako jolasak baino ez ziren koloretako koaderno haiek, berari opari gisa ekarriak.

Auskalo, nork jakin!

Kontua da lasto eta banbuzko etxola jendez bete zela aurreko egunean, eta berak aspaldi ez bezala gozatu zuela Lamu auzoko-amonaren etxean. Horri gehitu ezker abenduko ospakizunetara Kathmandutik etorriak ziren Lamuren beste bi alaba (Lakpa eta Doma hain zuzen) ilundu baino apur bat lehenago agertu zirela bertara, bere memoria erein berrian oroitzen zuen egunik politenetako bat izan zen aurreko egunekoa.

Irrikitan zegoen basorako bere hurrengo abialditxoan bere adiskide orkatzekin honetaz guztiaz aritzeko. Ezin itxaron!

“Han datoz” - Antharke eta zuria ikustearekin batera Bangeraren etxera sartzearen ilusioak sortzen zion irribarrea ostentze bidean oharkabean ezarriz. Izeba Dolmarengana zihoan, Lamuk neguko otoitza egingo zuela eta oilar-janera gonbidatuta zegoela esatera. Bangeraren chang-a amets. Eta aurreko eguneko auzoko bikote laguna, bera bezalako ume batek dituen maitasunetan lehenengoetarikoen artean zegoena, beragana zetorren zuzen.

“Han datoz, ni banoa” - eta irribarrea beste une baterako ezkutatzuz, Laksumek jauzia egin eta bidexkatik ateraz, banbuen artean gorde zuen bere burua. Hasieran geldi, arnasari eutsiz, muinoetatik oihanera otsoa jaisten zenean berak eta basoxkako beste biztanle guztiek eusten zioten bezala, oin-hotsak hurbildu arte itxaron zuen. Behin hurbil zituela, arrastaka beheko bidea hartu, harlauza batzuen gainera heldu eta lauzpabost metroko distantziara utzi zuenean bikotea, ziztu bizian hasi zen maldan behera korrika.

Laupabost segundo igarota, irribarre iraunkorak berriz aurpegia irabazirik, hantxe zen berriz, bide erdian lasai, bertatik bertara zuen Bangeraren etxeko chang katilua ia-ia ezpainetan dastatuz.

Handik 30 bat metrora, Antharkek, ibileran gelditu gabe atzeraka begiratuz, bere adiskide zuriari barre eginez esan zion: “Laksum mukizuak izkin egin digu.” Irribarre egin zioten elkarri eta besterik gabe, Lamuren etxera goranzko bidean jarraitu zuten banbuen gerizpe hostotsuan murgilduz.

